

Año LIV. urtea

134 - 2022

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

## Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak

Peio Kamino Kaminondo, Patxi Salaberri Zaratiegi

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 134. zk. - 2022

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

*Zergatik panpox: flâneusearen arrastoan*  
Irati Majuelo Itoiz 281

---

Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak  
Peio Kamino Kaminondo, Patxi Salaberri Zaratiegi 309

---

Euskarazko elkarkari iragangaitzak: lexikoak ala sintaktikoak?  
Kristina Bilbao Hernandez 337

---

NOR-NORI-NORK *irrealisak* Gipuzkoan: *eginen* hedadura eta \**ezan* adizkien  
zenbait berrikuntza  
Olatz Leturiaga Angoitia 375

---

Euskararen jabekuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan:  
zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz  
Maidier Huarte 415

---

Euskal zenbatzaileen komuntzadura-aldakortasuna Hegoaldeko testu zaharretan  
Eukene Franco Landa 439

---

### VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa  
(II. dokumentu argitaragabeak)  
Ekaitz Santazilia 471

---

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /  
Rules for the submission of originals 491

---

# Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak

---

Estudio de la oiconimia de Luzaide / Valcarlos: los sobrenombres de casas

---

A study of Luzaide / Valcarlos oikonymy: house nicknames

Peio Kamino Kaminondo

Ikertzaile independentea

peiocamino2@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0002-2619-1189>

Patxi Salaberri Zaratiegi

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

salaberri@unavarra.es

<https://orcid.org/0000-0002-8945-2403>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv134.2>

Artikulu hau «Agencia Estatal de Investigación» delakoak finantzatutako *Toponimia del País Vasco y Navarra* (PID2020-114216RB-C64) izeneko ikerketa proiektuaren barnean egin da.

Jasotze data: 2022/10/11. Behin-behineko onartze data: 2022/10/27. Behin betiko onartze data: 2022/10/29.

## LABURPENA

Hemen Luzaideko etxe izengoitiak aztertzen ditugu, eta ondoko haranetako batzuk ere badakartzagu. Garbi ageri da etxe izengoitien emakumeentzako aldaerak eratzean Luzaide Garaziko beste herriekin batean doala, baita Aezkoa eta Zaraitzurekin ere. Izengoitiei lotu aitzin, herriaren bilakaeraz mintzo gara, Erdi Aroan hasi eta XIX. gizaldia bukatu arte: mendez mende zenbat etxe izan diren zehazten dugu, baita auzoen bilakaera zein izan den ere. Gero, etxe izengoitia zer den definitzen dugu eta, etxeen eta izengoitien taula emandakoan, zenbait ondorio ateratzen ditugu, besteak beste izengoitiak Luzaiden berean eta herritik kanpo bizirik dauden abizen batzuen iturri direla.

**Gako hitzak:** oikonimia; Luzaide; etxe izengoitia; deitura.

## RESUMEN

Nos ocupamos de los sobrenombres de Valcarlos surgidos de los oicónimos, y citamos también algunos de los valles cercanos. Es de señalar que las variantes femeninas de aquellos son acordes con los de otros pueblos de Garazi, y también con los de Aezkoa y Salazar. Luego describimos la evolución de Luzaide de la Edad Media al s. XIX: decimos cuántas casas ha habido en cada centuria y cuál ha sido la evolución de los barrios. Después definimos qué es un sobrenombre oiconímico y, tras dar la tabla de los oicónimos y sobrenombres, sacamos una serie de conclusiones, entre otras que los sobrenombres han dado lugar a una serie de apellidos todavía vivos en la localidad y fuera de ella.

**Palabras clave:** oiconimia; Luzaide / Valcarlos; sobrenombre de casa; apellido.

## ABSTRACT

Here we look into the nicknames stemming from Luzaide oikonyms, and we provide some data from adjacent valleys. The data indicate that, when generating house nicknames for females, Luzaide aligns with the villages in Garazi and with those in Aezkoa and Zaraitzu. We focus on the development of Luzaide from the Middle Ages up to the 19th century: we determine the number of houses for each century, and we describe how the neighborhoods have evolved. We then move on to defining house nicknames and, once a table with Luzaide oikonyms and nicknames has been provided, we draw some conclusions, e.g. that house nicknames are the source of some surnames in use.

**Keywords:** oikonymy; Luzaide; house nickname; family name.

1. SARRERA. 2. LUZAIDeko ETXE IZENEN BILAKAERA HISTORIKOA. 3. ETXE IZENGOITIAK. 4. LUZAIDeko ETXE IZENGOITIAK. 5. ONDORIOAK. 6. BERRIEMAILEAK. 7. LABURTZAPENAK. 8. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Luzaide muga herria izan da hondarreko mendeetan, XVI. gizaldian gaztelau-ara-goiarrek erresuma zahar txikia konkistatu zutenetik. Ordura arte mugarik ez zen alderdian muga sortu zen, haatik ez berehala eta arazorik gabe, izandako higimenduek frogatzen duten moduan. Muga ezarri zutenean, artean burdinola zen *Arranegi* herri bihurtu zen, eta orain auzo duen Ondarrola ere batu zitzaion, elizaz berant arte Luzaideko egin bada ere, herri honetako «hilarrietan» –hilerrian– dauden Ondarroloko familien hilobiek erakusten duten bezala. Konkistaren aitzinetik Luzaide Uharteko muga ondoan den *Mokozalea* etxetik –orain Lasakoa da– Ibañetako Done Salbatorreko kaperaraino *luzatzen* zen, baina gero, nazioarteko hitzarmena joan (Izengabea, 1787), nazioarteko hitzarmena etorri (Izengabea, 1885), egun duen heinera murriztu zuten udalerrria (ikus 1. irudia), ez luzaidarren arrangura eta kezkarik gabe, Bordelen bertsoetan ikusten den moldean (Satrustegi, 1965, 116.-122. or.).

Zernahi gisaz, mugak muga, arnegitar-ondarroloarren eta luzaidarren arteko harremanak ez dira eten, eta bi herriotako bizilagunen arteko ezkontzak usaiakoak izan dira eta oraino ere hala dira. Harremanak usuak izan dira, eta, horren ondorioz, bi herriotako hizkera ere bat eta bera izan da berriki arte, azkenaldian partikularki frantsesaren eragina begi bistakoa izanagatik mugaz iparraldeko Arnegin. Luzaiden mugazain, karabinero eta beste erdaldunen presentziak kinka larrian ezarri du euskararen beraren iraupena, eskola erdaldunarekin batean. Auzo herriko hizkuntza egoera ere ez da anitzez hobia, gazteetan menturaz makurragoa. Zorionez, gure egunotan, Arnegi, Ondarrola eta Luzaideko haurrek elkarrekin ikasten dute eskolan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, ez baitago gaizki.



1. irudia. Nafarroa Beherearen eta Nafarroa Garaiaren arteko muga.

Arnegiko eta Luzaideko etxe izendegia, pentsatzekoa zen eran, biziki iruditsua da, eta orobat lan honetan aztertu nahi dugun etxe izengoitien sistema. Hemen batez ere Luzaidekoak ikusiko ditugu, baina bistatik galdu gabe Arnegikoak eta, ezagutzen ditugun heinean, Garazikoak, Erroibarkoak, Aezkoakoak, Zaraitzukoak eta Baztangoak ere aipatu edo ukituko ditugu, euskararen egoerarengatik azterketa sakon eta zehatza egitea neke izanagatik, eskuarki, Nafarroa Garaiko lehen hiru ibarretan. Bestetako datuak ere erabiliko ditugu, berriro ere gure ezaguerak horretarako bide eta aukera ematen digun neurrian.

## 2. LUZAIDEGO ETXE IZENEN BILAKAERA HISTORIKOA

Satrustegik (1965-1966, 13. or.) Luzaide Donejakue bideari esker sortu zela dio eta hastapenean hiru eraikin zirela: Irauzketa, Gorosgarai eta Ibañetako Done Salbatore kapera. Nolanahiko gisan, aipatzen duen 1110eko agirian (Martín Duque, 1983, 318.-319. or.) hondarrekoa baizik ez da azaltzen eta, egun Orreagako lurretan bada ere, sasoi hartan kolegiata oraino sortzekoa zen eta badaiteke baseliza edo ermitattoa, artean, Luzaideko eremuan egotea, orain bi herrien arteko muga hor baita. Zernahi dela, *Oriarriaga* zeritzan elia<sup>1</sup> 1071rako ageri da, Leireko dokumentazioan (Martín Duque, 1983, 140. or.), eta zentzuzkoa iruditzen zaigu egungo Orreagan etxe zenbait bazirela pentsatzea, eta kapera alegiazko herrixka horretako dermioan zegoela, egun bezala. Irauzketaz kestione, derragun 1071ko aipatu agirian *Irauçeneta* elia azaltzen

1 Erdaraz *busto* izaten da euskarazko *eli* hitzaren baliokidea. Frantsesez, pluralean, «*des bustes ou vacheries*» ediren dugu inoiz.

dela, larrukiaren egoera kaskarrak ontsa irakurtzera uzten ez badu ere. Gure iduriz, daitekeena da horren azpian *Irauçquetaren* erako bat egotea, segurua ez izanagatik, jakina.

Jimenok (1969, 18. or.) Luzaideren antzinatasunaz ari delarik, Garazin erromatar-  
tzea aski sakona izan zela dio, eta etxeen sorrera ezin dela Erromesbidearen gain utzi,  
franko lehenagokoa behar duela izan. *Garazi* toponimoa bera –diogu guk– erroma-  
tarren denboretara garamatzen \*(villa) *Crassi* batean bilatu beharko dugula dirudi,  
*Crassus* pertsona izena ongi dokumentatua baitago, Lusitanian (Grupo Mérida, 2003,  
155. or.) eta penintsulako beste alderdi batzuetan ere, Tarragonan, erraterako (HE).  
Kajantok (1965/1982, 243.-244. or.) «*defects of the body as a whole*» atalaren barnean  
kokatzen du ('gizena' erran nahi du). Beraz, etorkiz 'Crassus izeneko gizon baten lurra  
edo baserria' zatekeen *Garazi*. Gero, *Garazin* oinarriturik, Erdi Aroan, Eiheralarre,  
Arnegi eta Ondarrola kokaturik dauden *Garazbizkaia* edo *Garazbizkar* toponimoa  
sortu zen, eta *Baigorri* izenetik abiatuak, Luzaide dagoen mendialdea adierazten zuen  
*Baigorribizkaia* edo *Baigorribizkar*. *Garazbizkaia* edo *Garazbizkarren* adierakide zen  
*Garazbortu* ere lekukotzen da, geroago, XVIII. jendamdian.

1333rako luzaidarrek hamarren edo «dekumak» ordaintzen zituzten, landutako lu-  
rrengatik (Jimeno, 1969, 18. or.). Ikertzaile honen hitzetan, sasoi hartan populazioa  
franko handitu zen, hainbeste non etxe eta jende kopurua bikoiztu eta 1335erako 30 bat  
eraikin baitzeuden. 1366an (Carrasco, 1973, 469. or.) hamar su aipatzen dira herrian  
eta, Satrustegik (1965-66, 14. or., 1969-1970, 156. or.) dioenez, hamalau etxe ziren  
1427an, urte horretako su erroldan (NEAN, su liburuak, 8, 213.-215. or.; kopia 1751n  
egina da) ikus daitekeen bezala. Monteanoren arabera (2000, 424. or.), hamazazpi etxe  
zeuden ia laurogeita hamar urte geroago, 1514an. 1580ko zerrendan (NEAN, 88056)  
hogeita hamalau etxe ageri dira Luzaiden, Baigorribizkaian; aintzat hartu beharra da  
hondar mendeetan Ondarrolan izan den Zeztua etxea ere Baigorribizkaikoen artean  
sartua dela, nahiz eta, gero, *Garazbizkaiko* bederatzi etxeak zerrendatzen direnean  
«*jtem la casa de Aynçil en Undarrola junto a Çeztau*» aipatzen den.

1644an (NEAN, 30713, 22, 2) 46 eraikin dauzkagu Luzaideko etxeak biltzen diren  
zerrendan. Horietatik, auzorik aipatzen ez bada ere, lau egungo Artxurietan zeuden,  
zazpi Gaiñdolan, hamasei Gainekoletan, zortzi Elizaldean eta hamaika Pekotxetan.  
Hiru urte geroago, 1647an (NEAN, 30713, 23, 5), 47 etxe zeuden, nahiz *Bidondoa* ez  
den argiro azaltzen (bai, ordea, *Pedro Bidondo* zitzaiona). Hauetarik, auzorik aipatzen  
ez den arren, sei Artxurietan zeuden, beste sei Gaiñdolan, hemezortzi Gainekoletan,  
bederatzi Elizaldean (Karrikan) eta zortzi Pekotxetan.

1677an (NEAN, 30713, 23, 27) 74 etxe ziren, zehazkiago erran, 73 (hauetako batek  
ez zuen zergarik ordaintzen) eta bikarioa bizi zen «elizako etxea». Bi *Urçallearena* zeu-  
den, leku bertuan (60 eta 64 zenbakia daramate, hurrenez hurren), eta bi *Amorosena*  
(65 eta 66 zenbakiak dituztenak), segur aski etxe beraren bi alderdiak. Goiti-beheiti,  
oraingoan ere auzorik aipatzen ez den arren, hamar etxe zeuden Artxurietan, bederatzi  
Gaiñdolan, hogeita lau Gainekoletan, hogeitaz Karrika edo Elizaldean eta hamaika Peko-  
txetan.

1720ko dokumentu batean (NEAN, 11296/2) 88 etxe azaltzen dira, baina hemen zenbaitetan deizio bat noiz den izengoiti hutsa, noiz den etxe izengoitia eta noiz etxe izena ez dago guztiz garbi, eta 85 edo 91 ere izan litezke eraikinak, hiru beheiti, hiru goiti. 1726ko apeoan (NEAN, Estatistika saila, 24. agiri sorta, 35. zk.), berriz, 107 etxe zerrendatzen dira: hauetako laurogeita hirutan auzo jabeak ditugu, haiekin bizi diren bi apez, zortzi etxetiar, egoiliar bat («un morador»), bi etxe huts, sei behartsu, bikarioaren eta erretorearen etxeak, bi eihera, burdinola bat, zergarik gabeko etxe bat («una casa de esempzion») eta Orreagako kolegiataren benta (*Gorosgarai*, izen hau aipatzen ez bada ere). Urte horretan ere ez da auzorik agertzen. Eskribauak *Zubiandiatik* hasten du zenbaketa, behetik, iparraldetik: egungo Pekotxetan hemeretzi etxe zeuden (*Parisea* auzo honen barnekotzat jotzen dugu), Karrika edo Elizaldean hogeita hamalau (*Anchorizena* hondarra), Gaindolan hamaika, Artxurietan hogeita bat eta Gainekoletan hogeita bi. Apeoan garbi ikusten da horietarik bi (*Goeneche* eta *Yparraguirre*, hots, *Goienetxea* eta *Iparragerria*) berriak zirela.

1770eko zerrendan (Satrustegi, 1965-1966, 28.-29. or.) bi auzo baizik ez dira ageri: behekoa eta gainekoa, Ondarrolaz landara. Behekoan berrogeita sei etxe zeuden, goikoan hogeita hamasei, eta Ondarrolan hogeita hiru. 1786an (NEAN, Comptos, 32438) 116 etxe edo eraikin azaltzen dira, oraingoan auzoka emanak: Beheitiko etxean (Pekotxetan) 21 zeuden, Elizaldean (Karrikan) 42, Basaburuan (Gaindolan) 13, Artxurietan 18 eta Gainekoletan 22. Aintzat hartu behar da Bartzelona Beheitiko etxean (Pekotxetan) sartzen zela 1786koan, baina egun Karrikakotzat jotzen dela. Azoletarik ez dago: hemen diren etxeen izenak denboraz Elizaldekoetan kausitzen ditugu, 1786an segurik bai, eta XIX. gizaldiaren hasmentan ere bai. Frantses armadak 1793an Luzaide goi-behe zizpildu ondoan sortu zen Azoletako auzoa, XIX. gizaldiaren lehen erdian edo. Bestalde, Artxurietako 1786ko hemezortzi etxeetarik bi baizik ez daude orain zutik (*Manuelenea* eta *Okaztranea*), eta bi horiek Gainekoletaren barnean ematen dituzte egun. Duela hogeita hamar bat urte *Miñotarenea* eta hondatzen hasiak ziren *Otxinenea* eta *Kadena* ere baziren.

1793ko apirilaren 25ean frantses armadak Luzaiden sartu eta herriko etxeak eta bazterretxeak erraustu zituen; honela erraten da 1806ko agiri batean (NEAN, 11379, 96)<sup>2</sup>:

Juan de Gaztambide Gañecoche [...] y dichos Alcalde y Regidores dixeron que hasta el año de mil setecientos noventa y tres, en el que y por el mes de abril fue imbadido este valle por las tropas francesas en guerra que al tiempo se seguía por nuestra nación y también fueron reducidos a cenizas todos los edificios y de resultas

2 Nolanahi ere, 1805eko beste agiri batean (NEAN, 11378, 42) ikusten den bezala, tartean okerrik eta makurrik ez badago bederik, ez zen 1793koa frantses armadaren lehen inbasio eta erreketeta. Dokumentu horren arabera, aitzineko urtean ere (1792an beraz) herrian sartu eta harrapatuak oro arpilatu, harrapakatu eta erreispildu zituzten: «...que con motivo de la última guerra seguida con la nación francesa por la española fue invadido esta villa y valle por la primera [vez] el año de mil setecientos noventa y dos, habiéndola saqueado, y reducido todos los edificios de este valle a cenizas, y en su consecuencia se internaron en este Reyno de Navarra emigradas las familias de este valle y durante dicha emigración murieron muchas de ellas entre los conflictos de la guerra y enfermedades».



sufrieron todas estas familias espatriadas una larga emigracion en lo interior de éste Reyno, y reunidas en este valle à consecuencia de los tratados de paces hechos en Basilea [...].

Real Academia de la Historia (1802, 426. or.) honela mintzo zaigu XIX. mendearen hasmentako Luzaidetz: «Tiene una iglesia parroquial de la advocación de Santiago apóstol, servida por un vicario, un beneficiado y un sacristan, una ermita y 503 personas que habitan en 15 casas útiles y 95 que desde la última guerra con Francia se hallan casi enteramente arruinadas». Hortaz, 1802 aldean 110 etxe zeuden Luzaiden, zutik eta zipilatuak zeudenak kontuan edukirik, aipatu Akademiaren arabera betiere, baina bizitzeko moduan zeudenak hamabost baizik ez ziren. Cadiñanosek (2011, 89. or.) biltzen duenez, Poudez arkitektoaren iritzian Luzaiden etxe batzuk, Gorosgaraiko benta eta borda anitz berritu edo berreraiki behar ziren. Zehazkiago, eliza, hiru ermita, 125 etxe eta 205 borda. Denetara 1.636.509 errealeko zuen horiek guztiak arranjatzeak, arranjatu izan balira.

1806ko zerrendan (NEAN, 11379) 69 dira medikuari eta botikariari ordaintzeko sosa ematen duten etxeak; herrian, ordea, anitz artean ere erre eta eroriak egonagatik, gehiago ziren denbora hartan. Pekotxetako bi etxe baizik ez dira ageri, menturaz besteek sendagilea eta botikaria Arnegin zituztelako; ez jakinki. Auzo horretako –Pekotxetako– *Menuzerrarenea*, *Xainduarenea* eta *Zubiaundia* hor ez dira azaltzen, baina bai urte bereko beste dokumentu batzuetan.

Luzaidarren miseria eta zorigaitza ez zen horrenbesterekin bukatu: 1808an frantses armadak Espainia okupatu zuen, eta 1811n *Espoz eta Mina*, *Gorriz*, *Kruxaga*, *Txolin*, *Ultzurrun* eta gainerako *brigante* edo gerrillariak harrapatzeko bando ezagunak (Apat-Etxebarne [A. Irigarai], 1974, 145.-150. or.) euskarara itzularazi zituen Reille kondea ezarri zuten «Iruñeko hirian» buru. Honen aginduz, herriek ordaindu beharreko zergak berretu ziren, eta, ondorioz, aitzineko behar gorria handitu besterik ez zen egin, luzaidarren eta beste nafarren eguneroko bizimodua itotzeraino (1811, NEAN, 11384, 67): «...*las crecidas y repetidas contribuciones extraordinarias en estos tres años con motivo de ocupar este Reyno las tropas francesas y sus aliados*».

1813an, Bonaparteren osteak Frantziara itzuli zirenean, Luzaidetik igaro eta ebasgoan aritu omen ziren. Ingalaterrako eta Portugalgo armadaren presentziak ere ez zuen mesede handirik egin herrian: 1815eko agiri batean (NEAN, 11388, 98) ikusten den moduan, luzaidarrek, batzarrean bildurik, Iruñeko auzoa zen Migel Iratzokiri esku eman zioten auzitara jo eta aipatu armadek 1813ko udan jandako gari-artoen eta erabilitako belarraren ordaina galdegin eta eskuratzeko.

XIX. mendea aski nahasia izan zen eta, gehienxkoenetan bezala, jende xeheak ordaindu zituen, kario ordaindu ere, nahaskeria haiek. Konparazioe, denbora hartan *Bidondoa* zeritzana (ondorengo *Bidondozaharrea*), frantses armadak 1793an pispildutakoan, Nafarroako «boluntario osteak» berriz erre zuen, hogeita hamar urte geroago, 1823an: «*la referida casa titulada de Vidondo que se halla incendiada el año de mil ochocientos veinte y tres por la tropa de voluntarios de este reino en el varrio de Peco*

*echeta junto al rio mayor y devajo del camino que dirige a Francia»* (1829, NEAN, 11401, 167). Arizmeakako Okaztrango borda «matxinoek» (*los facciosos* erdaraz) kiskali bide zuten, 1840 baino lehen (NEAN, 11412/1, 661). Irudi duenez, azken bi erreketak, 1823koa eta 1840aren aitzinekoa, karlistaldien giroko gertaerak dirateke.

Madozen hiztegiaren Nafarroako liburukian (1849, 379. or.), Luzaidek 128 etxe dituela erraten da, *Gaiñecoleta*, *Gaindola*, *Elizaldea*, *Azoleta* eta *Pecocheta* auzoetan banatuak. Horretaz lekora, herriko etxea zegoen, kartzela, neska-mutikoentzako lehen mailako eskola (hirurogei ikasle zituen), Done Jakueko eliza (bikarioa eta benefiziadua), bi ermita (Pilareko Andre Mariarena eta Magdalenarena) eta osagarriarendako onak ziren hainbat iturri. Horretaz gainera, Orbaizetako ola hornitzen zuen Arrollandietako burdin meatzea<sup>3</sup>, iltzeak egiteko bi lantegi, zamargindegia eta egoera onean ziren hiru eihera zeuden. Ferra edo zamari bideak hiru besterik ez ziren: Donibanera zihoana, Orreagaratekoa eta Banka-Aldudeetarakoa, eta ez zeuden errotak bezain egoera onean, hala-hola baizik.

1865. urtean 158 etxe zeuden Luzaiden (Satrustegi, 1965-1966, 32. or.) eta 39 Ondarrolan; 1886an 154 etxe zituen Luzaidek eta 34 Ondarrolak. Kontuan eduki bedi Ameriketara joan lagunak (Satrustegi, 1965-1966, 32. or.), 1865ean, 38 izan zirela Luzaiden, eta 23 Ondarrolan, baina 83 pertsona lau urte geroago, bi populazio guneak aintzat harturik, oker ez bagaude.

### 3. ETXE IZENGOITIAK

Euskaraz ohikoa da jendea sortu den edo ezkondu eta bizi den etxearen izenaren araberak deitzea, eta honetan dago, egon ere, egungo euskal deitura anitzen etorkia (ikus Salaberri & Zubiri, 2009). Ezaguna da Berriobeitiko Felix Sarasa jauna, XIX. mendearen hasieran Napoleonen tropen aurkako borroketan nabarmendu zen gerrillaria, Iruñe ondoko Artika herriko *Zolinarena* edo *Txolinena* etxera ezkondu zelako *Txolin* deitzen zutena (Jimeno, 1992/1997, 37. or. Ikus beherago honetaz dioguna).

Honelakoak biziki ugariak dira Euskal Herrian, baina bada ezaugarri bat Garazi eta Lasako alderdia mugaz hegoaldeko eremutik bereizten duena: Iparraldean arrunta da etxe izengoiti horiei *-(e)sa* bukaera ezarri eta emakumeak izendatzeko ibiltzea; mugaz hegoaldean, aldiz, ez da ohikoa, Aezkoa eta Zaraitzutik kanpo, bi ibar horietan franko ibili izan baita era hori.

I. Caminok (1997, 424. or.) Aezkoako hauek dakartza: *Alkeizesa* (Hiriberriko etxe-koandrea, *Alkeiz[éi]nako*, baina Abaurregainean aditutako etxe izengoitia da), *Fantzelesa* (Abaurregaina), *Agerresa*, *Nikasiosa* (Orbaizeta), *Kondesa* (Hiriberri). Ez ditu

3 Cf. testigantza hau: «...*todos vecinos del valle de Valcarlos y propusieron que el citado Fernando Yroz remato el arranque de ocho mil quintales de mena en el mineral de Arrollandieta en la Real Fabrica de municiones de guerra de Orbayceta*» (1832).

ordea, etxe izenekin lotzen. Ondoko ahozko adierazpenean, alabaina, datu hauek eman dizkigu Gasteizko irakasleak: *Agérre / Agerrésa* (*Agerrék[Q]a*, Hiriberri), *Ezpelóndo / Ezpelondósa* (*Ezpelondók[Q]a*, Hiriberri), *Fantzel[éi]* edo *Fantxel[éi]* / *Fantzelésa* (*Fantzel[éi]na*, Abaurregaina), *Iturrálde / Iturraldésa* (*Iturraldék[Q]a*, Hiriberri), *Kónde* edo *Kóndde / Kondésa* (*Konderéna*, Hiriberri), *M[ai]xtérra*, *M[ai]stérra / M[ai]xterrésa*, *M[ai]sterrésa* (*Maixterr[éi]na*, Orbaizeta), *Nikás[j]o / Nikas[j]ósá* (*Nikas[j]ó[í]na*, Orbaizeta), *Xák[w]e / Xak[w]ésa* (*Xak[w]éna*, Orbaizeta).

Dokumentazioan hauek ditugu, besteak beste: «*Juan de Echeuerria ô Chiquirrin*» (1786, Garralda; NEAN, errege epaimahaiak, denetariko paperak, alistamenduak), «*Josef de Egurce alias Mujurdin*», «*Juan de Eguinoa alias Aguerre*», «*Pedro Laurenz alias Conde*», «*Pedro Lopeandia alias Jurico*» (Orbaizeta, 1800, NEAN, 11372/1, 31; *Muxurdinena*, *Agerre(koa)*, *Konderena* eta *Xurikorena* dira etxeak, egun *Muxurdinéna*, *Agerrék[Q]a* edo *Agérre*, *Kond[éi]na* eta *Xurik[ó]na* ebakiak), «*Miguel Fermin Barberena Minondo*, *Juan Lorenzo Sastrezuria Aroscoa y Manuel Antonio Barberena Enecho los quatro* (sic) *vecinos del lugar de Garralda*» (1818, NEAN, 11391, 114; *Aroxkorena*, *Barberena*, *Enetxorena* eta *Minondorena* Garraldako etxeak dira, *Aroxk[ó]na*, *Barberéna*, *Enetx[ó]na*, *Minond[ó]na* ebakiak). Abaurregainean hau dugu: «*Pedro Joseph Yturburu Orbara* [...] *Pedro Joseph Yturburu y Maria Miguel Chiquirrin su muger* [...] *dueños de la casa de Orbara* [...] *Francisco Estevan de Arrese y Lureta*» (1829, NEAN, 11393, 5; egun *Orbararena* eta *Luretakoa* dira, *Orbar[éi]na* eta *Lurták[Q]a* ahoskatuak).

Otsagabiko Artaxoko José Antonio Barberrek dioskunez, *Antxón[j]o* etxeko gizoni *Antxón[j]o* erraten zaie, emakumei *Antxon[j]ésa*, eta *Artáxo* (*Artasso* 1641ean eta 1689an; NEAN, Zaraitzuko pr., 1, 15, Hernando de Ategui eta 5, 38, Remiro de Algarra) etxeko gizoni *Artáxo* eta emaztekiei *Artaxésa*, ez \**Antxon[j]osa*, \**Artaxosa* Garazin eginen litzatekeen maneran. Nolanahi ere, herria euskalduna zelarik *Anttonio* erraten bide zen (baita *Benttura*, *Bittorio* eta *Kattalin* ere; ikus Mitxelena, 1967, 167. or.). *Arezreko* gizona *Arézre* da egun Zaraitzuko herriburuan, eta andrea *Arezrésa*; *Berradre* etxeko nagusia *Berrádre* deitzen dute eta etxekoandrea *Berradrésa*. Ibar bereko Espartza herrian *Arrése* deitzen dutena ezagutu dugu guk; etxea, erdaraz, *Casa Arrése* da, baina euskaraz *Artsekoa* zen Mitxelenaren arabera (1967, 170. or.), hain segur ere *Artsék[Q]a* ebakitzen zena. Uste izatekoa da lehenago *Arretsea* zatekeela (*Arresse* 1644an; NEAN, Zaraitzuko pr., 2, 9, Hernando de Lavari).

Garazi aldean, Ondarrolako *Anton[j]ó[n]j]a* etxeko jaunari *Antón[j]o* erraten zaio, eta etxekoandreaki *Anton[j]ósá*. Arnegiko auzoa den honetan, lehen *Antxondoinia* izeneko etxea zegoen (J. Camino, 2008, 41. or.; *Antxond[ó]n[j]a* ebakia, zalantzarik gabe; iduri du egungo *Julinenea* bera zatekeela) eta bertako etxekoandreaki *Antxondosa* zeritzan: *Juana Barcelona Anchondosa* (1828, NEAN, 11400, 98). Egundak *Axín[j]a* (*Assi* eta *Asirena* izkiriari, 1815ean, NEAN, 11398, 94) etxeko jaunari *Áxi* da eta etxekoandrea *Axísa*; *Pell[ó]n[j]a*koak *Péllo* eta *Pellósá* ditugu, *Xapárr[j]a*koak *Xapár* eta *Xaparrésa*, *Zetztá[w]a*koak (*Çetztáw* 1580an, NEAN, 88056; *Zetztáw* 1816an, NEAN, 11389/1, 135) *Zetzt[áw]* eta *Zetzt[áw]sa*. Arnegin *Argál[j]a* (*Argaraia*) etxeko gizonari *Arg[ái]* deitzen zaio, eta emaztekiari *Arg[ái]sa*; era berean, *Xu(h)arrén[j]a* etxeko jaunari *Xúar* erraten zaio, eta etxekoandreaki *Xuarrésá*.

Mugaz hegoaldean badira kasu batzuk, Zaraitzutik landa, baina bakanak dira: Amaiurren (Baztanen) Paskual Rekalde euskaltzainak dioskunez (ahozko adierazpena), *Makitén[ē]a* (< *Mariketenea*. 1726ko etxe zerrendan *Mariquitarena* dugu, NEAN, Estatistika saila, 5, 2; oinarria *Mari(a)*ren *Marikita* hipokoristikoa bide da) etxe ko jaunari *Makít* erraten zaio egun, eta etxe ko andreari *Makitésa*; *Etxepár[ē]a* etxekoei (*Echaparea* aipatu 1726ko apeoan) *Etxepáre* eta *Etxeparésa*, eta *Kallón[ē]a* (*Callorenea* 1726ko apeoan) etxekoei *Kállo* eta *Kallósa*, baina kasu horietaz besterik ez dago alderdi horretan, guk dakigula, eta besteren bat izanik ere, garbi dago ez dela erabilera sistematikoa, ez duela Garazi aldeko orokortasuna.

Erroibarren holakorik ibiltzen zenetz ez dakigu, baina bai gizonkilako etxe izengoitiak ohikoak izan direla: «*Francisco Xavier de Yrigaray Martindorre, Pedro Angel de Azanza Chanchotena y Joseph Antonio Larralde Bernatena*» (Auritz, 1818; NEAN, 11391, 114), «*Bernardo Landerreche Martindorre vecino de Burguete [...] Bernardo Landerreche [...] debiendo su casa de Martindorre [...]*» (Auritz, 1820; NEAN, 11393, 46). Aurizperriko dokumentazioan ere agertzen dira batzuk: «*Escritura censal [...] otorgada por Juan Martin Urtasun y Berechena con su muger [...] Juan Martin Urtasun y Joaquina Erro se muger vezinos de este lugar y dueños de la casa de Berechena*» (1833, NEAN, 11405, 40; *Beretxenea / Casa Bertx* Barandiaranen arabera, 1926, 3. or.), «*Auto de retrocesion de heredades, otorgado entre Fernando de Cilbeti Buruz, y Christobal Hualde Echeverri vecinos del lugar de Espinal [...] Fernando Zilveti vezino y dueño de la casa de Burucena del lugar de Espinal de la una parte y de la otra Cristoval Ugalde hasi bien vecino y dueño de la de Echeverricoa del mismo lugar*» (1810, NEAN, 11383/2, 60; *Buruzenea / casa Buruz* eta *Etxeberri, Barandiaran*, 1926, 3.-4. or.), «*Pedro Beraiz Sastrearena de Espinal [...] Pedro Beraiz vecino residente del lugar de Espinal dueño de la casa de Sastrearena*» (1834, NEAN, 11405, 4).

Etxe izengoitiak egiteko bide bat baino gehiago daude, lekuan lekuko hizkeraren eta oikonimoaren nolakoaren arabera. Hemen, erran bezala, ez dugu hasi eta bukako, aldean besteko lanik egin gogo, baina, adibidez, azentu-intonazio berezikarak –beste batzuen aldean berezikarak, bistan da– dituen Goizueta herrian *Górrene*, *Máio*, *Oláso* baserri izenak dira eta *Gòrrené*, *Màió*, *Olàsó* etxe horietakoen izengoitiak (ikus Salaberri & Zubiri 2009, 827.-828. or.), eta badakigu beste leku batzuetan ere azentuarekin jokatzen dela: *Santúko* baserria / *Sántuko* bertakoa Ermuan; *Apála* / *Ápala* Zeberion, etab. (Salaberri & Zubiri, 2009, 828. or.). Hau alor interesgarri bezain landugabea dugu, doktore tesi bat baino gehiago egiteko lehengaia.

#### 4. LUZAIDEDO ETXE IZENGOITIAK

Etxe izengoitietan oinarriari *zaharra* eta *gaztea* adjektiboak erantsi izan zaizkio Luzaiden, leku berean bizi ziren etxe ko jaun edo etxe ko andre zaharra eta gaztea bereizteko. 1826an kausitu dugun erdarazko hau, ildo beretik, *Ki(t)teria gaztea* edo *Zubiburu gaztearen* ordainez dagoela zalantza handirik ez dago: «*Manuel Reclusa dueño de la casa de Quiteria y Juan Miguel Barcelona dueño joben de la misma casa*» (NEAN,

11398, 200). Hots, *Sastrearenean* sortutako *Manuel Reclusa* delakoa *Kitteriarenea* edo *Zubiburua* izeneko etxera ezkondua zen, *Ana Maria Barcelona* emazte hartu eta, baina *nagusi gaztea*-ren «titulua» *Ana Maria* horren anaia zen *Juan Migeli* zegokion, nonbait, artean segurik.

Bestalde, nabarmentzekoa da emazteekilako etxe izengoitiak *-(e)sa* atzizkia duela bakarrik doanean, baina gizonkilako bera dela aitzinean andrearen ponte izena aipatzen denean. Geroztik, *Toloxesa* ‘Toloxako etxeakoandrea’, *Mariaurresa* ‘Mariaurrareneko etxeakoandrea’, *Xurginesa* ‘Xurginarengo etxeakoandrea’, *Aitzurresa* ‘Aitzurreko etxeakoandrea’ erraten da aitzinean ponte izenik ez delarik, baina *Dominika Toloxa*, *Elena Xurgina*, *Aña Mari Mariaurra*, *Katalin Aitzurre* erabiltzen dira, ez \**Dominika Toloxesa*, \**Elena Xurginesa*, \**Aña Mari Mariaurresa*, \**Katalin Aitzurresa*.

Hirugarren bide bat ere bada: *ponte izena + etxearen izena + leku genitiboaren hondarkia + artikulua* edo *etxearen izena + leku genitiboaren hondarkia + ponte izena* (honetaz ikus beherago, 39. puntuan dioguna). Adibidez, *Dominika Toloxakoa* edo *Toloxako Dominika*, *Elena Xurginareneko* edo *Xurginarengo Elena*, *Aña Mari Mariaurragoa* edo *Mariaurrareneko Aña Mari*, *Katalin Aitzurrekoa* edo *Aitzurreko Katalin*, etab. Nolanahiko gisan, Toloxan, konparazio, emazteki guztiak ez dira *Toloxesa*; bakar-bakarrik etxeakoandrea zaharra (*Toloxesa zaharra*) eta etxeakoandrea gaztea (*Toloxesa gaztea*) dira, ez besteak. *Toloxesa* «titulua» erdiesteko, bestalde, ezkondua behar du egon delako emakumeak. *Toloxesa zaharra* edo *Toloxesa gaztea* ez den Toloxako beste edozein emakume, *Nati* konparazio baterako, *Nati Toloxakoa*, *Toloxako Nati* edo *Nati Toloxa* izan daiteke, baina ez *Toloxesa*, erran moduan. Nabarmendu beharra da, gainera, etxe batzuetan gizonkilako izengoitia ibili izan dela gure denboran, baina ez emaztekiekilakoa, ardua gizona donadoa edo alarguna zelako. Nolanahi ere, eta gorago azaldu dugun moduan, badakigu herrian guk belarriz ukan ez ditugun formak ibili izan direla.

Bildu ditugun etxe izengoitien taulan *ponte izena + oikonimoa + -ko + artikulua* edo *oikonimoa + -ko + ponte izena* egitura dutenak, *Gazan Putikorengo* edo *Putikorengo Gazanen* erakoak, ez dira aintzat hartu, baina bai (*ponte izena +*) *etxe izengoitia* dauzkatenak, (*Gazan*) *Putikoren* modukoak. Taula ongi ulertzeko, kontuan eduki behar da agirieta datuak eta Luzaideko arotzarenak (Satrustegi, 1969) biltzen dituen laugarren zutabeen onimoak eskribauek eta arotzak berak erdal grafiarekin izkiriatu zituztela, eta holaxe bildu ditugula guk. Horregatik, ez da miresteko, adibidez, euskarazko txistukariak, sabaikariak eta hasperena argiak ez izatea edo izkribuz ez agertzea, hots, aldaera dokumental horiek oinarrian dutena garbiro ez erakustea. Bestalde, beste zutabeetan, parentesi artean ematen ditugun akabailak zalantzazkoak dira, letra etzanez idatzirik dauden deizioak bizirik ditugu, eta izkirio zuzen edo arruntez ematen direnak, aldiz, ahantzirik daude. Hona hemen bada Luzaideko etxeen eta etxe izengoitien taula:

1. taula. Luzaideko etxeak eta etxe izengoitiak

Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
<i>Agerrea</i>	<i>Agerre</i>	<i>Agerresa</i>	Aguerre	<i>Agerre</i>	<i>Agerresa</i>
<i>Aitzurrea</i>	<i>Aitzurre</i>	<i>Aitzurresa</i>	Aizurre	<i>Aitzurre</i>	<i>Aitzurresa</i>
<i>Aldatsea</i>	<i>Aldats</i>	<i>Aldatsesa</i>	Aldas	<i>Aldats</i>	<i>Aldatsesa</i>
<i>Altzonenea</i>	<i>Altzon</i>	<i>Altzonesa</i>	-----	<i>Altzon</i>	<i>Altzonesa</i>
<i>Amallauenea</i>	<i>Amallau</i>	<i>Amallausa</i>	-----	<i>Amallau</i>	<i>Amallausa</i>
<i>Andikoberria</i>	<i>Andikoberri</i>	<i>Andikoberrisa</i>	Andicoberri	<i>Andikorri</i>	<i>Andikorrisa</i>
<i>Andikozaharrea</i>	Andikozar	-----	Andicozar	-----	-----
<i>Antxorizenea</i>	<i>Antxoriz</i>	<i>Antxorizesa</i>	Anchoriz, Anchuriz	<i>Antxuriz</i>	<i>Antxuizesa</i>
Apezetxea (2)	Apezetxe	-----	Apezeche	-----	-----
Ardantxena	Ardantxe	-----	Ardanche	-----	-----
<i>Ariasenea</i>	<i>Arias</i>	<i>Ariasesa</i>	-----	<i>Arias</i>	<i>Ariasesa</i>
Ariña(rena)	Ariña	-----	Ariña	-----	-----
<i>Arnegizarrea</i>	<i>Arnegizar</i>	<i>Arnegizarresa</i>	Arraneguiçar Arneguizar	<i>Arneizar</i>	<i>Arneizarresa</i>
<i>Arroioenea</i>	<i>Arroio</i>	-----	-----	<i>Arroio</i>	-----
<i>Arrosagarirenea</i>	<i>Arrosagarai</i>	<i>Arrosagaraisa</i>	-----	<i>Arrosagarai</i>	<i>Arrosagaraisa</i>
<i>Atxoarenea</i>	<i>Atxoa</i>	<i>Atxoesa</i>	Achoa Achua	<i>Atxua</i>	<i>Atxuesa</i>
<i>Auntxainarenea</i>	<i>Auntxaina</i>	<i>Auntxainesa</i>	-----	<i>Auntxaina</i>	<i>Auntxainesa</i>
<i>Barberarenborda</i>	<i>Barberarenborda</i>	<i>Barberarenbordsa</i>	Barberainborda	<i>Barberainborda</i> <i>Barberinborda</i>	<i>Barbeinbordsa</i>
<i>Barberarenea</i>	-----	-----	Barbera, Zirujano	-----	-----
<i>Bartzelona</i>	<i>Bartzelona</i>	<i>Bartzelonesa</i>	Barzalona, Barcelona	<i>Bartzelona</i> , <i>Bartzalona</i>	<i>Bartzelonesa</i>
<i>Basterorenea</i>	<i>Bastero</i>	-----	-----	<i>Bastero</i>	-----
<i>Behotxainarenea</i>	Behotxaina	-----	Beozana, Beozaiarena, Beosaña	-----	-----
<i>Benttarenea</i>	<i>Bentta</i>	<i>Benttesa</i>	Venta, Benta	<i>Bentta</i>	<i>Benttesa</i>
<i>Beñatenea</i>	Beñat	-----	Beñat, Beñatena 'Beñatesa'	-----	-----
<i>Betibixarrenea</i>	<i>Betibixar</i>	-----	Betibisar	<i>Betibixar</i>	-----
<i>Bettirenea</i>	<i>Betti</i>	<i>Bettisa</i>	Beti	<i>Betti</i>	<i>Bettisa</i>
<i>Bexinenea</i>	<i>Bexin</i>	<i>Bexinesa</i>	Besin	<i>Bexin</i>	<i>Bexinesa</i>
Bidaberea	Bidabere	-----	Bidabere	-----	-----
Bidaburu(a)	Bidaburu	-----	Bidaburu	-----	-----
<i>Bidartea</i>	<i>Bidart</i>	<i>Bidartesa</i>	Bidart	<i>Bidart</i>	<i>Bidartesa</i>
<i>Bidondoa</i>	<i>Bidondo</i>	<i>Bidondosa</i>	Vidondo	<i>Bidondo</i>	<i>Bidondosa</i>
Bixarrenea	Bixar	-----	Bisar	-----	-----
<i>Bixkarrea</i>	<i>Bixkar</i>	-----	-----	<i>Bixkar</i>	-----

Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
Bolokerena	Boloke	-----	Boloque	-----	-----
<i>Bordaxarrea</i>	<i>Bordaxar</i>	<i>Bordaxarresa</i>	Bordasar	<i>Bordaxar</i>	<i>Bordaxarresa</i>
<i>Bordda</i>	<i>Bordda</i>	<i>Borddesa</i>	Borya	<i>Bordda</i>	<i>Borddesa</i>
<i>Bordelea</i>	<i>Bordel</i>	<i>Bordelesa</i>	Bordel	<i>Bordel</i>	<i>Bordelesa</i>
<i>Burdinerreka</i>	Burdinerreka	-----	Burdinerreca	-----	-----
<i>Burdinzubia</i> edo <i>Peko</i> <i>Auntxainarenea</i>	<i>Burdinzubi</i>	<i>Burdinzubisa</i>	Aunzaina, Aunzañarena	<i>Burdinzubi</i>	<i>Burdinzubisa</i>
Burrunba(rena)	Burrunba	-----	Burrunba	-----	-----
<i>Buruxurirenea</i>	<i>Buruxuri</i>	<i>Buruxurisa</i>	Burusuri	<i>Buruxuri</i> , <i>Buxuri</i> , <i>Buzuri</i>	<i>Buruxurisa</i> , <i>Buxurisa</i> , <i>Buxuisa</i>
<i>Doraia</i>	<i>Dorai</i>	-----	Doray	<i>Dorai</i>	-----
Dorrekoa	Dorre	-----	Dorrecoa, Dorre	-----	-----
<i>Edarreta</i>	<i>Edarret</i>	<i>Edarretesa</i>	-----	<i>Edarret</i>	<i>Edarretesa</i>
<i>Enautenea</i>	<i>Enaut</i>	<i>Enautesa</i>	Enautena, Enaut	<i>Enaut</i>	<i>Enautesa</i>
<i>Erlanddorenea</i>	Erlando	-----	Erñanyonea, Ernandonea, Ernanyo	-----	-----
Erlanttorenea	Erlantto	-----	Erlanto	-----	-----
<i>Erreka</i>	<i>Erreka</i>	-----	Erreca	<i>Erreka</i>	-----
<i>Errekalderenea</i>	<i>Errekalde</i>	<i>Errekaldesa</i>	-----	<i>Errekalde</i>	<i>Errekaldesa</i>
Errekazarra	Errekazar	-----	Errecazar	-----	-----
<i>Errekulusa</i>	<i>Errekulusa</i>	-----	Erreculusa	<i>Errekulusa</i>	-----
Errementatxar	Errementaxar	-----	Errementasar	-----	-----
Errotaburua	Errotaburu	-----	Errotaburua, Errotaburu	-----	-----
<i>Etxaundia</i>	<i>Etxaundi</i> <sup>4</sup>	<i>Etxaundisa</i>	-----	<i>Etxaundi</i>	<i>Etxaundisa</i>
<i>Etxeberria</i>	<i>Etxeberri</i>	<i>Etxeberrisa</i>	Echeberri	<i>Etxeberri</i>	<i>Etxeberrisa</i>
<i>Etxexuria</i>	<i>Etxexuri</i>	-----	Echesuri, Echexuri	<i>Etxexuri</i>	-----
<i>Exkerrarenea</i>	Exkerra	-----	Esquerra	-----	-----
<i>Exkilenea</i>	Exkil	-----	Esquil	-----	-----
Ferragillearena	Ferragille(arena)	-----	Ferraguilearena	-----	-----
<i>Ferranenea</i>	<i>Ferran</i>	<i>Ferranesa</i>	-----	<i>Ferran</i>	<i>Ferranesa</i>
<i>Filiperenea</i>	Filipe	-----	Filipe, Pilipe, Filipeina, Phelipeina, Philipenia	-----	-----
Frantses(enea)	Frantses	-----	Franches, Franses	-----	-----

4 Luzaideko gutunetan *Etxaundi* ageri da.

Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
<i>Gainekoetxea</i>	Gainekoetxe	-----	Gaineco eche, Gainecoeche, Gañecoeche, Gañecoeche	-----	-----
<i>Garrizenea</i>	<i>Garriz</i>	<i>Garrizesa</i>	-----	<i>Garriz</i>	<i>Garrizesa</i>
<i>Gasparrenea</i>	Gaspar	-----	Gasparrena, Gaspar	-----	-----
<i>Gerezinarenea</i>	Gerezina	-----	Gracianarena, Gracianena, Gerezina	-----	-----
<i>Goienetxea</i>	Goienetxe	-----	Goyeneche	-----	-----
<i>Goñirenea</i>	<i>Goñi</i>	-----	-----	<i>Goñi</i>	-----
<i>Granada</i>	<i>Granada</i>	<i>Granadesa</i>	Garnada	<i>Garnada</i>	<i>Garnadesa</i>
<i>Grazianenea</i>	<i>Grazian</i>	-----	-----	<i>Grazian</i>	-----
<i>Harginarenea</i>	<i>Hargina</i>	<i>Harginesa</i>	Arguina, Arguinarena	<i>(H)argina</i>	<i>(H)arginesa</i>
<i>Hegikopelorenea</i>	<i>Hegikopelo</i>	<i>Hegikopelosa</i>	-----	<i>(H)egikopelo</i>	<i>(H)e(g)ikopelosa</i>
<i>Inaxiorenea</i>	Inazio	-----	Ynacio	-----	-----
<i>Inozenterenea</i>	<i>Inozente</i>	<i>Inozentesa</i>	-----	<i>Inozente</i>	<i>Inozentesa</i>
<i>Iribarnea</i>	<i>Iribarne</i>	<i>Iribarnesa</i>	Yribarren, Yribarne	<i>Iribarne</i>	<i>Iribarnesa</i>
<i>Isabelenea</i>	-----	-----	Ysabelenea	-----	-----
<i>Iturburua</i>	<i>Iturburu</i>	<i>Iturburusa</i>	Yturburu	<i>Turburu</i>	<i>Turburusa</i>
<i>Jabierrenea</i>	Jabier	-----	Gabier	-----	-----
<i>Jakaluxenea</i>	Jakalux	-----	Yacalus	-----	-----
<i>Jakesenea</i>	<i>Jakes</i>	<i>Jakesesa</i>	Yaques, Yaquesena	<i>Jakes</i>	<i>Jakesesa</i>
<i>Janpiarrerenea</i>	-----	-----	Yanpiarre	-----	-----
<i>Jauregiberria</i>	Jauregiberri	-----	Yaureguiverri, Yaureguiberri, Yaure(i)berri	-----	-----
<i>Jelosena</i>	Jelos	-----	Gelos	-----	-----
<i>Jeme(rena)</i>	Jeme	-----	Yeme	-----	-----
<i>Juanesarginarenea</i>	-----	-----	Juanes argina	-----	-----
<i>Juanesxurginarenea</i>	Juanesxurgina, Juanesxurgina	-----	Yuanes surguina, Yuanes zurguina	-----	-----
<i>Juanperitzenea</i>	Juanperitz(ena)	-----	Yamperizena	-----	-----
<i>Kaballerorenea</i>	Kaballero	-----	Caballero	-----	-----
<i>Kanterorena</i>	Kanttero	-----	Cantero Cañtero Canchero	-----	-----
<i>Karorenea</i>	Karo	-----	Caro	-----	-----
<i>Karrikaburua</i>	<i>Karrikaburu</i>	<i>Karrikaburusa</i>	Carricaburusa	<i>Karrikaburu</i>	<i>Karrikaburusa</i>



Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
<i>Kitteriarenea</i>	<i>Kitteria, Kiteria</i>	<i>Kitteriesa, Kiteriesa</i>	Quiteria	<i>Kitteria, Kiteria</i>	<i>Kitteriesa, Kiteriesa</i>
<i>Kloskerorenea</i>	<i>Kloskero</i>	<i>Kloskerosa</i>	Closquero, Closquerua	<i>Kloskero</i>	<i>Kloskerosa</i>
<i>Kotxurenea</i>	<i>Kotxu</i>	-----	-----	<i>Kotxu</i>	-----
<i>Koxinenea</i>	<i>Koxin</i>	<i>Koxinesa</i>	Cosin, Cuchinessa, Cosin Cosinena	<i>Koxin</i>	<i>Koxinesa</i>
<i>Kurutzezarrea</i>	<i>Kurutzezar</i>	<i>Kurutzezarresa</i>	Gurucezar, Guruzegar, Curucezar	<i>Kurutzezar, Kutzar</i>	<i>Kurutzezarresa, Kutzarresa</i>
<i>Lakelekua</i>	<i>Lakeleku</i>	-----	-----	<i>Lakeleku</i>	-----
<i>Lakostarenea</i>	<i>Lakosta</i>	-----	-----	<i>Lakosta</i>	-----
<i>Lapitzenea</i>	<i>Lapitz</i>	<i>Lapitzesa</i>	Lapiz	<i>Lapitz</i>	<i>Lapitzesa</i>
Lapurdi(renea)	Lapurdi	Lapurdisa	Lapurdi, Lapurdisa	-----	-----
<i>Larrokarenea</i>	<i>Larroka</i>	-----	-----	<i>Larroka</i>	-----
Lasarraborda	Lasarraborda	-----	Lasarraborda	-----	-----
Lasarraetxea	Lasarraetxea	-----	Lasarraetxea	-----	-----
<i>Lasarrarenea</i>	<i>Lasarra</i>	<i>Lasarresa</i>	Lasarra	<i>Lasarra</i>	<i>Lasarresa</i>
Lasarrarene-zaharra	Lasarra	-----	Lasarra	-----	-----
<i>Laurentxenea</i>	<i>Laurentx</i>	-----	Laurenc, Laurench, Laurenchena	-----	-----
<i>Luisenea</i>	<i>Luis</i>	<i>Luisesa</i>	-----	<i>Luis</i>	<i>Luisesa</i>
<i>Madarixxeta</i>	<i>Madarixxet, Madarixx</i>	<i>Madarixxetesa</i>	Madarich	<i>Maatxet, Madarixx</i>	<i>Maatxetesa</i>
<i>Maestruarenea</i>	<i>Maestru, Maestrua</i>	<i>Maestrusa</i>	Maestria	<i>Maestru, Maestria</i>	<i>Maestrusa</i>
<i>Maestruarene-zaharra</i>	Maestrua	-----	Maestria	-----	-----
<i>Maiterenea</i>	<i>Maite</i>	<i>Maitesa</i>	Mayte, Maite	<i>Maite</i>	<i>Maitesa</i>
<i>Majinenea</i>	<i>Majin</i>	-----	-----	<i>Ma[x]in</i>	-----
<i>Manuelenea</i>	Manuel(enea)	-----	Manuelenea	-----	-----
<i>Mariaurrarenea</i>	<i>Mariaurra</i>	<i>Mariaurresa</i>	Mariaurra	<i>Mariaurra</i>	<i>Mariaurresa</i>
<i>Marimaiterenea</i>	Marimaite	-----	Marimaite	-----	-----
<i>Marinenea</i>	<i>Marin</i>	<i>Marinesa</i>	-----	<i>Marin</i>	<i>Marinesa</i>
<i>Mariñorenea</i>	<i>Mariño</i>	<i>Mariñosa</i>	Mariño	<i>Mariño</i>	<i>Mariñosa</i>
Martinenea (1)	Martinena	-----	Martinena, Martirena	-----	-----
Martinenea (2)	Martinenea	-----	Martinenea	-----	-----
<i>Martinenea (3)</i>	<i>Martinenea</i>	<i>Martinesa</i>	Martinenea	<i>Martinenea</i>	<i>Martinesa</i>
Martinkoberarenea	Martinkobera	-----	Martin cobera	-----	-----

Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
<i>Marttinorenea (1)</i>	<i>Martino</i>	<i>Marttinosa</i>	Martino, Martiño	<i>Martino</i>	<i>Marttinosa</i>
<i>Marttinorenea (2)</i>	<i>Martino</i>	<i>Marttinosa</i>	Martino, Martiño	<i>Martino</i>	<i>Marttinosa</i>
<i>Martzelinorenea</i>	Martzelino	-----	Marzelino	-----	-----
<i>Matxarderenea</i>	<i>Matxarde</i>	-----	Macharde	<i>Matxarde</i>	-----
Matxikirenea	Matxiki	-----	Machiqui	-----	-----
<i>Matxirenea</i>	Matxi	-----	Machi	-----	-----
<i>Medikuarenea</i>	<i>Medikua</i>	<i>Medikusa</i>	Mediquia	<i>Medikia</i>	<i>Medikusa</i>
Menautena	Menautena	-----	Menautena	-----	-----
Menuzerrarena	Menuzerra, Menuxerra	-----	Menucerra, Menuserra	-----	-----
Migelenea	Migelenea	-----	Miguelenea	-----	-----
<i>Mikelauenea</i>	<i>Mikelau</i>	<i>Mikelausa</i>	Miquelau	<i>Mikelau</i>	<i>Mikelausa</i>
<i>Miñotarenea</i>	-----	<i>Miñotesa</i>	-----	-----	<i>Miñotesa</i>
<i>Morikorenea</i>	Moriko	-----	Morico, Murico	-----	-----
<i>Moxorenea (1)</i>	<i>Moxo</i>	<i>Moxoesa, Moxosa</i>	Moso, Mocho, Mozo, Mosorena	<i>Moxo</i>	<i>Moxuesa, Moxosa</i>
<i>Moxorenea (2)</i>	-----	-----	Mochoarena	-----	-----
<i>Nabarlatzea</i>	<i>Nabarlatz</i>	<i>Nabarlatzesa</i>	Nabarlaz	<i>Nabarlatz, Naarlatz</i>	<i>Naarlatzesa</i>
Oiorotenea	Oiorot	-----	Oyorot	-----	-----
<i>Okaztranea</i>	<i>Okaztran</i>	<i>Okaztranesa</i>	Ocaztran, Quaztran	<i>Okaztran</i>	<i>Okaztranesa</i>
<i>Onddorenea</i>	<i>Onddo</i>	<i>Onddosa</i>	Onyo	<i>Onddo</i>	<i>Onddosa</i>
<i>Otxinenea</i>	-----	-----	-----	-----	<i>Otxinesa (Satrustegi)</i>
<i>Padremuñorenea</i>	<i>Padremuño</i>	<i>Padremuñosa</i>	Padremuño	<i>Pramuño</i>	<i>Pramuñosa; Premuñosa (Aintziburu)</i>
<i>Parisea</i>	<i>Paris</i>	-----	Paris	<i>Paris, Pais</i>	-----
<i>Pedrolapitzenea</i>	<i>Pedrolapitz</i>	-----	-----	<i>Pedrolapitz</i>	-----
<i>Pedromarirenea</i>	<i>Pedromari</i>	-----	Pedromari	<i>Pedromari</i>	-----
<i>Pedrottoarenea</i>	<i>Pedrottoa</i>	-----	Predotua	<i>Preottua</i>	-----
<i>Pedrottoarene-zaharra</i>	Pedrotto, Pedrottoa	-----	Pedrocho, Pedrochoa, Pedrochoarena, Pedrotoarena	-----	-----
<i>Peiomoxorenea</i>	<i>Peiomoxo</i>	<i>Peiomoxosa</i>	-----	<i>Peiomoxo</i>	<i>Peiomoxosa</i>
<i>Pelobegirenea</i>	<i>Pelobegi</i>	<i>Pelosa (LG2)</i>	-----	<i>Pelo(b)egi</i>	-----
Petitena	Petitena	-----	Petitena	-----	-----
<i>Piparenea</i>	<i>Pipa</i>	-----	-----	<i>Pipa</i>	-----
Potxotena	Potxot	-----	Pochot	-----	-----
<i>Prasedesenea</i>	<i>Prasedes</i>	-----	-----	<i>Prasedes</i>	<i>Prasesa</i>

Etxe izen arautua	Etxe izengoiti arautua (giz.)	Etxe izengoiti arautua (em.)	Etxe izengoitia dok. / arotza	Etxe izengoitia ahoz (giz.)	Etxe izengoitia ahoz (em.)
<i>Putikorenea</i>	<i>Putiko</i>	<i>Putikosa</i>	Putico, Mutico	<i>Putiko</i>	<i>Putikosa</i>
Putikourdinarenea	Putikourdina	-----	Putico urdina	-----	-----
<i>Puttilarenea, Putilarenea</i>	<i>Puttila, Putila</i>	<i>Puttilasa, Putilesa</i>	Putila	<i>Puttila, Putila</i>	<i>Puttilasa, Putilesa</i>
<i>Putzirenea</i>	<i>Putzi</i>	-----	-----	<i>Putzi</i>	-----
Sastrearenea (Sastreinea)	Sastrea	-----	Sastrea Chastre Sastrearena Sastreya	-----	-----
<i>Soroarenea</i>	<i>Soroa</i>	<i>Soroasa</i>	-----	<i>Soroa</i>	<i>Soruasa</i>
<i>Toloxa</i>	<i>Toloxa</i>	<i>Toloxasa</i>	Tolosa	<i>Toloxa</i>	<i>Toloxasa</i>
<i>Ttalorenea</i>	<i>Ttalo</i>	<i>Ttalosa</i>	Talo	<i>Ttalo</i>	<i>Ttalosa</i>
Ttipittoarenea (1)	Ttipitto	-----	Chipicho, Tipito	-----	-----
<i>Ttipittoarenea (2)</i>	<i>Ttipitto</i>	<i>Ttipittoasa, Ttipittosa</i>	-----	<i>Ttipittua</i>	<i>Ttipittuasa, Ttipittosa</i>
Txominena	Txomin	-----	Chomin, Chominena	-----	-----
Uartea	Uarte	-----	Uarte	-----	-----
<i>Urtxelena</i>	<i>Urtxel</i>	<i>Urtxelasa</i>	Urtchel	<i>Urtxel</i>	<i>Urtxelasa</i>
Uzkipitzerrenea	Uzkipitzer	-----	Uzquipicer	-----	-----
<i>Xainduarenea</i>	<i>Xaindu</i>	<i>Xaindusa; Xaindusa (LG1)</i>	-----	<i>Xaindu</i>	<i>Xaindusa</i>
<i>Xapitelena</i>	<i>Xapitel</i>	<i>Xapitelesa</i>	Chapitel, Sapitel	<i>Xapitel</i>	<i>Xapitelesa</i>
<i>Xatanena</i>	<i>Xatan</i>	<i>Xatanasa</i>	-----	<i>Xatan</i>	<i>Xatanasa</i>
<i>Xehiarenea</i>	<i>Xehia</i>	<i>Xehiasa</i>	Seya, Seia, Cheia	<i>Xehia</i>	<i>Xehiasa</i>
<i>Xertolorenea</i>	<i>Xertolo</i>	<i>Xertolosa</i>	Sertelo Sertolo	<i>Xertolo</i>	<i>Xertolosa</i>
<i>Xirriskinena</i>	<i>Xirriskin, Xirrixkin</i>	-----	Chirrisquin, Chirrisquinena, Chirrisquin	-----	-----
<i>Xubialdea</i>	<i>Xubialde</i>	<i>Xubialdasa</i>	Zuialde	<i>Xualde</i>	<i>Xualdasa</i>
<i>Xurginarenea</i>	<i>Xurgina</i>	<i>Xurginasa</i>	Zurguina	<i>Xurgina</i>	<i>Xurginasa</i>
<i>Xuriñorenea</i>	<i>Xuriño</i>	-----	Suriño, Zuriñua	-----	-----
Xuritoarena	Xuritoa, Xuhitoa	-----	Suitoa	-----	-----
Zapataginarenea	Zapatagina	-----	Zapataine, Zapatina, Zapaguinarena	-----	-----
<i>Zipilirenea</i>	<i>Zipili</i>	<i>Zipilisa</i>	-----	<i>Zipili</i>	<i>Zipilisa</i>
Zubialdea	Zubialde	-----	Zubialde	-----	-----
Zubiaundia	<i>Zubiaundi</i>	<i>Zubiaundisa</i>	Zubiandi	<i>Zuiaundi</i>	<i>Zuiaundisa</i>
Zubiburua	Zubiburu	-----	Zubiburu	-----	-----
<i>Zumarragarenea</i>	<i>Zumarraga</i>	-----	-----	<i>Zumarraga</i>	-----

## 5. ONDORIOAK

Etxe izengoitien azterketatik ondorio hauek atera daitezke:

5.1. Etxe izengoitiak erabiltzeko joera zaharra da, oikonimoak bezainbeste, antza.

5.2. Zenbait oikonimok gizonkilako izengoitia badute, baina emazteekilakoa ez dugu guk sekula aditu. Egia erran, etxe izengoitiak oikonimoaren oinarria bera dira, hots, gehienetan berak dira etxe izena sortu dutenak. Gehienetan, baina ez beti, ez erabat behintzat: salbuespenak *Etxaundia* → *Etxaundi*, *Etxeberria* → *Etxeberriren* moduko oikonimo deskribatzaileak dira.

5.3. Gure gizartean, historian zehar, gizonek izan dute rolik nabarmenena, emaztekiek kaltetan, eta ez da harritzeko, beraz, oikonimo gehien erroa era bateko edo besteko gizon izena (*ponte izena*, *deitura*, *izengoitia*, *ponte izena* + *etxe izengoitia*...) izatea.

5.4. Horregatik, etxe izengoitietan gizonkilakoa izaten da termino ez markatua eta emazteekilakoa, aldiz, markatua, hartatik modu batera edo bestera eratorria. Azken hori egiteko biderik ohikoena, nahiz euskarak, ongi dakigun bezala, genero gramatikarik ez ukan, *-(e)sa* atzizkia erabiltzea da, baina badira, erran dugun moduan, beste bide batzuk: *Toloxesa* baina *Dominika Toloxa*, ez *\*Dominika Toloxesa*; *Xurginesa* edo *Elena Xurgina*, ez *\*Elena Xurginesa*. Ikusi bezala, kasu hauetan –baita gizonentzaketan ere– etxe izengoitia erabiltzeko partez etxe izena erabil daiteke, gibelean *-ko(a)* ezarriz gero: *Dominika Toloxakoa*, *Elena Xurginarenekoa* nahiz *Toloxako Dominika*, *Xurginarenko Elena*.

5.5. Zernahi gisaz, kasu batean behintzat emaztekiekilako etxe izengoitiaz besterik ez dago: *Miñotarenea* → *Miñotesa*. Guk ez dugu gizonik ezagutu etxe horretan. Nola-nahi ere, garbi dago gizona izan balitz *\*Miñota* zatekeela.

5.6. Atzizkia, *-(e)sa*, noiz eta nola erabil daitekeen edo erabili behar den zehaztea ez da neke: gizonkilakoa *-a* ez den bokal batez bukatzen bada aski da *-sa* gehitzea: *Agerre* → *Agerresa* (*Agerrea* etxea; cf. Ondarrolako *Borderrea* → *Borderre*, *Borderresa*), *Buruxuri* → *Buruxurisa* (*Buruxurirenea*), *Iturburu* → *Iturburusa* (*Iturburua*), *Karrikaburu* → *Karrikaburusa* (*Karrikaburua*), *Martino* → *Marttinosa* (*Marttinorenea*) eta abar. Agirietan kausitu dugun lehen *-sadun* etxe izengoitia Ondarrolako *Antxondorenean* oinarritu *Anchondosa* luzaidarrarena da (*Juana Barcelona Anchondosa*, 1828), oker ez bagaude.

5.7. Salbuespenen bat bada, hala ere: *Peiomoxo* → *Peiomoxosa* (*Peiomoxorenea*), baina *Moxo* → *Moxoesa* (*Moxorenea*). Iduri luke *Moxorenearen* oinarrian *-adun* antroponimoa egon dela (*Moxarena*), baina *Moxoesa* erdiesteko, zuzenbidean, *\*Moxoaren(e)a* behar genuke, eta holakorik ez dugu sekula ediren. Gauza bera erran daiteke *Ttipittuesa* edo *Ttipittosaren* gainean; honen arrazoia menturaz *Ttipittoren(e)a* vs *Ttipittoaren(e)a* zalantzan bilatu beharko genuke.

5.8. Gizonekikoa diptongoz akitzen delarik ere *-sa* ibiltzen da: *Amall[áú]* → *Amall[áú]sa* (etxea *Amall[ái]n[j]a* da euskaraz, *Amall[áú]* erdaraz), *Arrosagar[ái]* → *Arrosagar[ái]sa* (*Arrosagar[ái]n[j]a*), *Mikel[áú]* → *Mikel[áú]sa* (etxea *Mikel[ái]n[j]a* da euskaraz, *Mikel[áú]* erdaraz).

5.9. Guztiarekin ere, kontsonantez bukatzen den gizonekiko etxe izengoitiak *-a* artikulua badu, hura kentzen da *-esa* gehitu aitzinetik, edo *-a + e- > -e-* egiten, hurrengo puntukoekin bezala: *Auntxaina* → *Auntxainesa* (*Auntxainarenea*), *Lasarra* → *Lasarresa* (*Lasarrarenea*), *Mariaurra* → *Mariaurresa* (*Mariaurrarenea*), *Put(t)ila* → *Put(t)ilesa* (*Put(t)ilarenea*).

5.10. Gizonentzako izengoitiaren bukaerako *-a* artikulua ez bada, *-a + e- > -e-* egiten da: *Bartzelona* → *Bartzelonesa* (*Bartzelona*), *Bentta* → *Benttesa* (*Benttarenea*), *Bordda* → *Borddesa* (*Bordda*), *Granada* → *Granadesa* (*Granada*), *Kit(t)eria* → *Kit(t)eriesa* (*Kitteriarenea*), *Toloxa* → *Toloxesa* (*Toloxa*).

5.11. Gizonekilakoa kontsonantez bururatzen bada *-esa* ibiltzen da: *Aldats* → *Aldatsesa* (*Aldatsea*), *Antxoriz* → *Antxorizesa* (*Antxorizenea*), *Arnegizar* → *Arnegizarresa* (*Arnegizaharrea*), *Bexin* → *Bexinesa* (*Bexinenea*), *Bidart* → *Bidartesa* (*Bidartea*), *Bordel* → *Bordelesa* (*Bordelea*), *Jakes* → *Jakesesa* (*Jakesenea*), *Lapitz* → *Lapitzesa* (*Lapitzenea*), *Okaztran* → *Okaztranesa* (*Okaztranea*).

5.12. Emaztekiekilako izengoitiek, luzeagoak baitira, joera handiagoa erakusten dute laburtzeko edo tarteko kontsonantea (*tap* arruntean, edo soinu igurzkarria) galtzeko: *Antxuriz* / *Antxurizesa*, *Barberainborda* edo *Barberinborda* / *Barbeinbordsa*, *Buxúri* / *Buxuisa*, (*H*)egikopelo / (*H*)eikopelosa, *Mariño* / *Maañosa*, *Nabarlatz* edo *Naarlatz* (aukeran) / *Naarlatzesa* (hau besterik ez), *Prasedes* / *Prasesa*.

5.13. Etxe izengoiti batzuk, formaz, guztiz bat datoz oikonimo osoarekin: *Bartzelona* → *Bartzelona*, *Bordda* → *Bordda*, *Erreka* → *Erreka*, *Errekulusa* → *Errekulusa*, *Granada* (*Garnada*) → *Granada* (*Garnada*), *Toloxa* → *Toloxa*.

5.14. Iduri du zenbait aldiz fonologiaren debekua dagoela, adibidez *Bordda* → \**Bordd* erabat arraroa izanen litzateke, eta *Granada* → \**Granad* ere bai (alabaina, debekurik ez legoke, segur aski, \**Granat* izateko; cf. *Bidart*, *Edarret*, *Madaritxet*), baina *Errekaren* kasuan ez dakigu \**Errek* euskararen fonotaktikaren aldetik arazotsua litzatekeen; ez dirudi. Gogora bedi, nolana hiko gisan, Arizkun *Meaka* etxe-koen izengoitia *Meaka* dela, ez \**Meak* (Salaberri & Zubiri, 2009, 828. or.), baina *Indartéa* → *Indárt*, *Ormartéa* → *Ormárt* (Arizkun; Salaburu, 1984, 312. or.). Luzaide ondoko Arnegin, ordea, *Flamenquena* (1759, 1761), *Flamenquenia* (1774) etxe-koen izengoitia *Flamenk* zen: «*Juan de Bidagaray Flamenq vecino del lugar de Arrenegui*» (1709, NEAN, 11292/2, 37). Honen onargarritasuna etimologian bilatu beharra da, Tarn departamenduko *Flamenc* herriaren izena baitagoke, hain segur, *Flamenkena* edo *Flamenkenea* Arnegiko oikonimoaren oinarrian, norbaiten abizena bitarteko zela, ezbairik gabe.

5.15. Bestalde, arazo berezirik ez luke izan behar *Errekulusaren* alegiazko *\*Errekulus* izengoitia sortzeko, *Jakesenea* → *Jakes*, *Parisea* → *Paris* hor ditugula jakinik. Beste hainbeste erran liteke *Toloxa* → *\*Tolox* hipotetiko batez; cf. *Jakaluxenearen* dokumentazioko *Jacalus* izengoitia, egungo grafian *Jakalux* emanen genukeena. Honen arrazoia, dudarik gabe etimologia da, *Jakesenearen* eta *Parisearen* etimoa *Jakes* eta *Paris* baitira, *Jakaluxenearena* *Jakalux*, baina *Errekulusaren* eta *Toloxaren* kasuan etimoak *Reclusa* eta *Tolosa* dira, ez *\*Reclus* eta *\*Tolos*.

5.16. *Bartzelonari* doakionez, *\*Bartzelon* formak berez onargarria ematen du, egun *Altzonenea* → *Altzon* badugulako (baita *Ferranenea* → *Ferran*, *Grazianenea* → *Grazian* ere), hots, sudurkari batekin bukatu izengoitia. *\*Bartzelon* izengoitia ez izateko debekua, ordea, etimologikoa da, aitzineko puntuan ikusi berbera.

5.17. Etxe izengoitiak eratzeko, batzuetan aski da oikonimoari artikulua, akabailako *-a* kentzea, genitiboak eta artikulua osatutako multzorik ageri ez delarik: *Aitzurrea* → *Aitzurre*, *Andikoberria* → *Andikoberri*, *Bidondoa* → *Bidondo*, *Doraia* → *Dorai*, *Etxexuria* → *Etxexuri*, *Iturburua* → *Iturburu*, *Xubialdea* → *Xubialde*, etab. Galdu diren oikonimoetan ere gauza bera genuen: *Gañecoechea*, *Gainecoechea* → *Gainecoeche*, *Gañecoeche*.

5.18. Egoera berean, beste batzuetan, oikonimoaren oinarria kontsonantez bururazten delarik, *-ea* kendu behar da izengoitia zein den jakiteko: *Aldatsea* → *Aldats*, *Andikozaharrea* → *Andikozar*, *Bixkarrea* → *Bixkar*, *Bordaxarrea* → *Bordaxar*, *Bordelea* → *Bordel*, *Okaztranea* → *Okaztran*, *Parisea* → *Paris*. Alegia, kasu guzietan etimoa bera da izengoitia. Honelakoak badira Baztango Arizkunen, baina ez Bortzerrietako Etxalarren (Apezetxea & Salaberri, 2009, 198.-200. or.).

5.19. Bereziak dira *Bidartea*, *Edarreta* eta *Madaritxeta* oikonimoen izengoitiak. Lehena, *Bidartea* → *Bidart*, gorago ikusi ditugun Baztango *Indartea* → *Indart*, *Ormartea* → *Ormart* bilakaeren erakoa da. Bigarrenaren kariaz, *Edarreta* → *Edarret* egiten da, hots, *-eta* atzizki toponimikoa dirudienari hondar bokala kentzen zaio, artikulua balitz bezala. Hirugarrena dela-eta, gizonakilakoa *Maatxét* (hots, *Madaritxet*) edo *Madarítx* da, aukeran, baina emaztekiekilakoa *Maatxetésa* (*Madaritxetesa*, osorik emanez) baizik ez, alegia, ez *\*Madaritxesa*, zergatik ontsa ez dakigula. Oroitu beharra da, puntu honetan, etxeari *Madaritxeta* erraten zaiola euskaraz, eta *Madaritx* erdaraz.

5.20. Oikonimoari, genitiboak eta artikulua osatu bukaera eboluzionatua duenean, multzo osoa kentzen zaio: *Altzonenea* → *Altzon*, *Antxorizenea* → *Antxoriz*, *Ariasenea* → *Arias*, *Arroiorenea* → *Arroio*, *Arrosagarairenea* → *Arrosagarai*, *Bettirenea* → *Betti*, *Enautenea* → *Enaut*, *Prasedesenea* → *Prasedes*, etab. Azken batean, erran moduan, oikonimoaren sorreran egon den antroponimoa da etxe izengoitia eta, hortaz, kronologiari doakionez, lehenik izena edo deitura dugu, gero jabegoko *-(r)en(e)a* gehitu zaio eta ondoren, etxekoa adierazteko, ponte izena edo deitura aldatu edota ahantzi delarik ere (jatorrizko ponte izen edo deitura hiztunek burutan ez dutelarik), etorkizko onimo hark jarraitzen du etxe izengoitia izaten.

5.21. Emaitza bera dugu oinarria ponte izena edo abizena ez, baizik mota bateko edo besteko izengoitia denean, zaharra edo berria: *Basterorena* → *Bastero*, *Benttarenea* → *Bentta*, *Buruxurirenea* → *Buruxuri*, *Onddorenea* → *Onddo*, *Piparenea* → *Pipa*, *Putikorenea* → *Putiko*, *Xapiteleneia* → *Xapitel*, *Xataneneia* → *Xatan*. Halaber, egun ezezagunak diren oikonimoetan: *Putikourdinarenea* → *Putikourdina*, *Zapataginarenea* → *Zapata(g)ina*.

5.22. Berezikara da *Urtxel*, etxea etorkiz *Urtzailearena* delako. Izengoitia *Urtxel* izatea, eta ez \**Urtxale* demagun, egungo *Urtxeleneia* aldaeraren aspaldikotasunari leporatu beharko zaio (cf. *Iribarneia* → *Iribarne*).

5.23. Diptongoa duten izengoitiek ez dute pairatu oikonimoek izan duten bilakaera, soinu ingurunea bestelakoa delako: *Amallau(ena)* > *Amallau(e)nea* > *Amall[ái]n[ja]* → *Amall[au]*; *Mikelauena* > *Mikelaueneia* > *Mikel[ái]n[ja]* → *Mikel[au]*. Hemen aintzat hartu behar da oikonimoen oinarrian diren izenak, etimoak, *Amallau* eta *Mikelao*, *Mikelau* (*Nikolau*) direla, izengoititako ibiltzen diren berberak. Arnegiko egungo *Kaxá[i]n[j]an* ere (*Cachauenia* 1773an, Arnegi, Baptêmes, Mariages, 2) gauza bera dugu, izengoitia *Kaxá[u]* baita.

5.24. Beste horrenbeste agitzen da oinarriak *-u* duenean: \**Karrikaburuia* > *Karrikabúr[j]a* → *Karrikabúru*. *Lakelekuaz* kestione, *Lakelék[j]a* ebakitzen da eta izengoitia *Lakeléku* da, ikusi bezala. Badirudi hemen ez dela \**Lakelekuia*ren modukorik izan, oikonimo berria baita, itxura batean, \**lekuia* > *lék[j]a* egiten zen denborakoa ez, baizik ondokoa.

5.25. *Iribarneia* etxearen kasuan etxe izengoitia *Iribarren* nahiz *Iribarne* zen. Kontua da *Yribarne* etxe izentako 1726rako lekukotzen dela, aski goiz eta, hortaz, denborarik aski izan dela *Iribarne* etxe izengoiti itxuraldatua jaio zedin, oikonimoaren beraren oinatzetan. Aintzat har bedi, alabaina, etxe izenaren *Yrivarrena* aldaera kontserbatzailea 1806an ere azaltzen dela agiritan, eta *Yrivarren* 1816an, franko berandu beraz. Cf. *Urtxeleneia* → *Urtxel*.

5.26. Oinarriko antroponimoa mugatua denean etxe izengoitia ere mugatua izan ohi da: *Atxoarenea* → *Atxoa*, *Auntxainarenea* → *Auntxaina*, *Lasarrarenea* → *Lasarra*, *Pedrottoarenea* → *Pedrottoa*, *Put(t)ilarenea* → *Put(t)ila*, *Xehiarenea* → *Xehia*, *Xurginarenea* → *Xurgina*. Arrazoia, berriz ere, etimoan xerkatu behar da, oikonimoaren erroan, arras oker ez bagabiltza, artikuludun izengoiti arrunta dagoelako (ikus gorago): *Atxoa*, *Abuntzaina*, *Lasarra*, *Pedrottoa*, *Put(t)ila*, *Xehia* eta *Xurgina*.

5.27. Honetan zenbait aldiz aldarro eta zabu batzuk suma daitezke: *Ttipitt[wái]n[j]a* (*Ttipittoarenea*) edo *Ttipitt[ói]n[j]a* (*Ttipittorenea*) → *Ttipítt[w]a*, *Ttipitt[wé]sa* edo *Ttipittósa*, *X[ái]nd[jái]n[j]a* (*Xainduarenea*) → *X[ái]ndu* edo *X[ái]nd[j]a*, eta *X[ái]ndúsa*, baina ez \**X[ái]nd[je]sa*. Ondoko honetan, berriz, bi joerak ikusten dira: *Maestr[jái]n[j]a* (*Maestruarenea*; gatzelaniaz *Maéstru*, *casa Maéstru*; euskaraz *Maestrurenea* ere erraten zaio: Luzaideko gutunetan «*Maestruineko seme batekin*» ageri da, ‘*Maestrureneko seme batekin*’) → *Maéstru* edo *Maéstr[j]a*, *Maestrúsa*. *Kloskerorenea*

oikonimoa bizirik dago, baina ez etxe izengoitia; hau, nolahi ere, frankotan azaltzen da Luzaideko arotzaren liburuan, gehienetan artikularekin (*Closquerua*), eta bitan hura gabe (*Closquero*). *Pedrottoarene*(*zaharr*)aren kasuan *Pedrochoa* eta *Pedrocho*, biak, lekukotzen dira, hots, *Pedrottoa* eta *Pedrotto*.

5.28. Etxe batetik ateratako norbaitek beste etxe bat eraiki duenean, edo, zehazkiago erran, beste bati izena eman dionean, adibidez hara ezkondu delako, pertsona izenari laguntzen dion izengoitia etorkizko etxearenarekin bat dator: *Bixarreena* → *Bixar* (ahantzia egun) / *Betibixarreena* → *Betibixar*; *Moxorenea* → *Moxo* / *Peiomoxorenea* → *Peiomoxo*, *Maiterenea* → *Maite* (ahantzia) / *Marimaiterenea* → *Marimaite* (berriki ahantzia).

5.29. Guztiaz ere, emazteki izengoitietan alde zerbait izan daiteke, aipatu kasu horietan: *Moxo(a)reena* → *Moxoesa* / *Peiomoxorenea* → *Peiomoxosa*. Ikus gorago errandakoa.

5.30. Egun, kasu batean, *-eneadun* oikonimo osoa erabiltzen da etxe izengoitizat ere, gizonkilakoetan: *Martinenea* → *Martinenea*, baina *Martinesa*. Hau apika *\*Martinesa* osoago batetik atera dateke, haplogiaz (cf. *Prásedes* eta *Prasésa*, hauek berriak izanik ere). Aintzat eduki bedi, alabaina, azentuazioa desberdina dela oikonimoan eta izengoitian: *Martinén[j]a* (etxea) vs *Martinenéa* (izengoitia).

Etxe izengoitiak azentua edota intonazioa aldatuz egitea ohikoa da Goizuetan eta bestetan, gorago erran bezala (honetaz ikus Salaberri & Zubiri, 2009, 828. or. eta hurr.). Garbi dago, beraz, Luzaideko kasu honetan ere, ez bakarrik Goizuetako ugarietan, morfologia eta fonologia estuki loturik daudela. 1817an *Martinenea* zen etxe izengoitia, nahiz Luzaideko gainerako gehienetan, agiri berean ikusten den bezala, oikonimoaren oinarria besterik ez azaldu. Kasu irudia da, baina ez berdin-berdina, oikonimoa eta etxe izengoitia bat bera direlako –hots, azentu aldaketarik ez delako–, Arnegiko *Domingorenea* (*Doming[ó]n[j]a* ebakia) eta Ondarroako *Pelloreena* (*Pell[ó]n[j]a* ahoskatua) etxe izen eta izengoitien kasua. Alegia, azken bi hauetan ere *Doming[ó]n[j]a* eta *Pell[ó]n[j]a* dira etxe izengoitiak, baina bigarrenaren kasuan *Péllo* ere ibiltzen da (ez dakigu *Domingorenearendako* *Domíngo* ere badenetz). Ordea, emaztekiendako *Pellósa* besterik ez bide da erraten (cf. Luzaideko *Martínésa*). Ikus Satrustegik (1967, 29. or.) zer dioen: «*Luzaideko “Errekalde” eta “Pello” Ondarroakoa aipatu nahi nituzke hemen, bertze anitzen partez*».

5.31. Dokumentazioan behin baino gehiagotan edireten dugu oikonimo osoa izengoitizat erabilia, batzuetan aldaera laburtuarekin batean: *Enautenea* (*Enautena* denboraz) → *Enautena* (dok.), baina *Enaut* egun; *Beñatenea* → *Beñat*, *Beñatena* ‘Beñatesa’ (dok.), *Gerezinarenea* (*Gracianarena*, *Guerecianarena*, *Gerezirenea*, *Guerecinainea*) → *Gracianarena*, *Gracianena*, *Gerecina* (dok.); *Isabelenea* → *Ysabelenea* (dok.), *Harginarenea* (*Arguinarena*) → *Argina*, *Arguina* eta *Arguinarena* (dok.), (*H*)*argina* egun; *Manuelenea* → *Manuelenea* (dok.), *Menautena* → *Menautena* (dok.) eta abar.

Hau Iparraldeko beste leku batzuetan ere agitzen zen: *Joanes de Gastanbide Christobalena* (1698, NEAN, 11289/7, 157; *Kristobalenea* da Arnegiko etxea, egun), *Martin Yrivarren Arrabitanea* (Banka, 1825; NEAN, 11397, 12; etxea *Arrabitenea* da orain),



*Martin Martinena Maestruarenea, Dominique Etchepare Xomindinenea* (Sara; Elosegi, 2005, 227. eta 252. or.). Erroibarko agirietan ere edireten dugu, arteka: *Jose Oroz Ibañesena* (Aurizperri, 1832; NEAN, 11404, 88), *Juan Martin Urtasun y Berechena, Pedro Beraiz Sastrearenea* (ikus gorago). Etxeak XIX. gizaldiaren lehen erdian *Ibañesena, Berechena* eta *Sastrearenea* lekukotzen dira; Barandiaranen (1926, 3.-4. or.) arabera *Ibañezenea, Beretxenea* eta *Sastrearenea* ziren euskaraz 1926 aldean.

5.32. Aitzinekoak aditzera ematen digu behiala forma osoak ibiltzea orain baino ohikoagoa zela (gaur egun *Martinenea* besterik ez baitago Luzaiden; Arnegin *Domíng[ó]n[j]a* dago eta Ondarrolan *Pell[ó]n[j]a*, erran moduan). Hortaz, ez da gaitz pentsatzea denboraz, deiturak artean finkatzeko zeudelarik, sistema ondoren bezain zurrun eta hertsia ez zelarik, honelako etxe izengoitiek *Martiñena, Mitxelena, Pedroarenaren* tankerako abizenak sortu zituztela, hau era bakarra ez izanagatik, hain segur (ikus Salaberri & Zubiri, 2009, 821.-823. or.).

5.33. Guztiaz ere, sinetsirik gaude, dokumentazioa azterturik, etxe izengoitiak eratzeko lehengo sistema nagusia egungo bera zela, hots, oikonimoaren oinarria ohi zen izengoitia. Hau honela izan da Luzaiden, Garazin (*Pellokorenea* → *Pelloko* Arnegin), Erroibarren (*Apetsuiena* → *Apetsui* Mezkititzen, *Buruzenea* → *Buruz*, *Etxeberrikoa* → *Etxeberri*, *Perkainen(e)a* → *Perkain* Aurizperrin), Aezkoan (*Muxurdinena* → *Muxurdi* Orbaizetan; *Enetxorena* → *Enetxo*, *Minondorena* → *Minondo* Garraldan; *Orbararena* → *Orbara*, Abaurregainean), Artzibarren (*Apeztegia* → *Apeztegi*, Saraguetan) eta bestetan (ikus Salaberri & Zubiri, 2009), baita Iruñerrian ere (cf. gorago aipatu den gerrillariaren *Txolin* izengoitia<sup>5</sup>). Gainera, 1817ko luzaidarren zerrendan, *ponte izena + deitura + etxe izengoitia* egitura erakusten duten deizioenean, 50etik bakarrik hirutan ageri da oikonimo osoa izengoititako, eta horietako bat aipatu *Martinenea* da. Beste 47 deizioetan forma laburtua, oikonimoaren oinarria da izengoitia.

5.34. *Bordadun* bazterretxe bakarra dago egun Luzaiden, bordak ia beti kabalendako izaten direlako, izan daitezen etxeokak, izan daitezen mendikoak. Salbuespen bakarra *Barberarenborda* da, eta kasu honetan etxe izengoitia ez da *Barbera*, jatorrizko *Barberarenean* zen bezala, ez eta *\*Barberaren* (cf. Etxalarko *Maestruenea / Maestruenborda* → *Maestruen* izengoitia, egun *Maéstrun* ebakia; Apezetxea & Salaberri, 2009, 131. or.) edo *\*Barberaborda* ere, *Barberarenborda* osoa baizik.

Antzeko zerbait gertatzen zen, nahiz oinarriak genitiboaren hondarkirik ez eraman, XIX. mendean zutik zen *Lasarraborda* etxeokoen izengoitiarekin: kasu honetan ere *Lasarraborda* zen. Erka bedi hau beste herri batzuetako erabile(ra)rekin (ikus Salaberri & Zubiri, 2009, 826. or.): *Gaztoneko borda* (< *Gazitoneko borda* < *Gazitoreneko borda*) → *Gaxito* (Amaiur), *Zipunteko borda* → *Zipunt* (Arizkun), *Mokotiko borda*

5 Kasu honetan *\*Txolina* litzateke etxe izengoitia, etimoa aintzat hartu izan balitz, palatalizazioa goiti-beheiti. Hemen, dena dela, *Zolinarena* > *Txolinarena* > *Txolinena* bilakaerarekin topo egiten dugu. Ikus Jimeno (1992/2017, 192. or.).

→ *Mokotto* (Oiz), *Arotzeneko borda* → *Arotxene*, *Intzeko borda* → *Intx* (Etxalar; ikus Apezetxea & Salaberri, 2009, 193.-194. or.), *Sastrearenborda* → *Sastrea* (Erratzu). Lapurdiko Beskoitzen (Duhau, 2003, 334. or.), berriz, *bordadun* forma osoa izaten da izengoitia, Luzaiden bezala: *Agerreko borda* → *Agerrekoborda*, *Harrietako borda* → *Harrietakoborda*, *Mentako borda* → *Mentakoborda*... Goizuetan azentu-intonazioarekin jokatzeko da: *Bikáinbòrdà* (etxea) → *Bikàinbòrdá* (izengoitia; Salaberri & Zubiri, 2009, 828. or.).

5.35. Batzuetan, arruntean oikonimo zaharraren ordainez azken aldian beste berriago bat erabili delako, oikonimoa belarriz ukaiteko aukera izan dugu, baina izengoitia dokumentazioan baizik ez dugu ediren: *Exkerrarenea* → *Esquerra* (*Exkerra* hain segur), *Exkilenea* → *Esquil* (*Exkil* segur aski), *Filiperenea* → *Filipe*, *Pilipe*; *Goienetxea* → *Goyeneche*, *Kaballerorena* → *Caballero*, *Jauregiberria* → *Yaureguiverri*, *Maitereenea* → *Maite*, *Marimaitereenea* → *Marimaite* (berriki ahantzia), *Matxarderenea* → *Matcharde*, *Xirriskineena* → *Chirrisquin*, etab.

5.36. Beste batzuetan etxe izengoitia ez ezik, oikonimoa bera ere ezezaguna da egun: *Gasparrena* → *Gasparrena*, *Kanterorena* → *Kanttero*, *Lapurdi(rena)* → *Lapurdi*, *Matxikirenea* → *Matxiki*, *Petitena* → *Petitena*, *Uzkipitzerrenea* → *Uzkipitzer*.

5.37. Kasu batean oikonimoa bi «norantzetan» erabil daiteke: *Hegikopelorenea* nahiz *Pelohegirenea*, eta izengoitia ere bi eratara ibil daiteke: (*H*)*egikopelo* nahiz *Pelo(h)egi*. Hemen izengoitizat erabiltzen dena oikonimoaren oinarrian dagoena da, berez etxe izengoitia: Ondarrolako *Hegia* etxeko *Pelori Hegiko Pelo* nahiz *Pelo Hegi* erraten ahal zitzaion, *Bartzelona* etxeko *Peiori Bartzelonako Peio* nahiz *Peio Bartzelona* deitzen zaion era berean, eta hortik Luzaideko egungo bikoiztasuna.

5.38. Berezia da *Sastrearenea* → *Sastreia* izengoiti historikoaren forma. Hau *Sastreai-nea*, *Sastreinea* aldaeratik abiatuta azaldu beharko da, aski berandukoa baita.

5.39. *Ponte izena + etxearen izena + leku genitiboaren hondarkia + artikulua* hurrenkera alda daiteke eta, adibidez, gutunetako adibideak hona ekarriz, «*engontik jakina dukexu Marittipi Prettuainekua Iruñeko ospitalian dela*» (LG1) nahiz «*jakina dukexu, Preottuango Maittipi ospitalian egonik etxeat jina duxu*» (LG2) erran daitekeela. Halarik ere, iduri luke lehenik eraikina aipatzea ohikoagoa dela ponte izenaren ondotik ematea baino: *Bartzelonako Peio* (arruntean) vs *Peio Bartzelonakoa* (bakanka), *Errekako Mixel* (eskuarki) vs *Mixel Errekakoa* (gutiagotan). J. R. Minondoren Goizueta - Oiartzungo 1800 inguruko gutunetan ere bi ordenak kausitzen ditugu, usaiakoena etxe izena eskuinean duena izanagatik (Salaberri, Zubiri & Salaberri, 2021, 162.-163. or.): «*Manuel Fagotxikikoaren alabarekin*», «*Franzisko Berentxikikoak esan dit*», «*Mikolas Arpidekoa egun izandu da*» vs «*Askorastiko Fermiñek eskatzen du*», «*Sarobeko Juan Ignaziok ikatza eman digu*», etab.

Egun ere Goizuetan (Salaberri & Zubiri, 2009, 823. or.) bi hurrenkerak berdintsu ibiltzen dira, apika ponte izena etxearen aitzinetik duena ardurakoagoa izanagatik, hots, Luzaidekoaren aurkakoa, *Amaia Zabaletanekoa* usaiakoxeagoa baita, iduriz,

*Zabaletaneko Amaia* baino. Interesgarria litzateke, gai honetan, beste herri batzuetako monografiak egitea, kopuruetara, zenbakietara jo ahal izateko. Luzaiden berean ere, agirietan, *Francisca Barcelona Hualdecoa*, *Juana Barcelona Aldasecoa*, *Juan Echaporeborda Boryacoa* (1828) eta *Maria Ynda Boryacoaren* (1829) modukoak baizik ez dira azaltzen, edutezko genitiboaren hondarkirik ez dutenen artean betiere. Cf. gainera «*Juan de Ugalde Yndartecoa vezino del lugar de Yasu en Baxanavarra*» (1815, NEAN, 11388/1, 28).

5.40. Haurrideek etxe izengoiti bana har dezakete, nora ezkontzen diren. Etsenplu pollitta da 1828ko hau (NEAN, 11400, 98): «*Simon Barcelona y Granada, Juana Barcelona Anchondosa, Francisca Barcelona Hualdecoa y Juana Barcelona Aldasecoa, los cuatro hermanos*». Lau haurride hauek Luzaideko Granada etxeakoak ziren, baina premuaz gainerako hirurak beste etxe batzuetara ezkondu ziren. Hortaz, *Simon Barcelona y Granada* hori Granadako etxeiko jauna zen, oinordekotza *Juan de Barcelona y Granada* (1800) zeritzan aitarengandik jarauntsia. Nesketako bik izen bera zuten, *Juana*, ez baitzen harritzeko Luzaiden (ikus Satrustegi, 1961, 210.-211. or.), lehenbizikoa orain ezezaguna den Ondarroako *Antxondorenea* (izen honekin ezezaguna; ikus gorago) etxera esposatua eta horregatik *Antxondosa* zitzaiona, eta bestea Gaiñdolako *Aldatsea* berrira, eta hortik *Aldatsekoa* gehigarria. Hirugarren neska, *Francisca*, Arnegiko *Uhaldea* etxera ezkondu bide zen, eta horri zor zaioke *Uhaldekoa* deizioa.

5.41. Beste aldetik, pertsona bakarrak artetan bi etxe izengoiti erakusten ditu, berea eta ezkontzaz jaso duen etxearena. Hau da, izan ere, XIX. gizaldiaren lehen erdian bizi izandako *Juan Urrizaga Oyorot y Doray* (1818) delakoaren kasua: ponte izen ofiziala *Juan* zuen (*Juanes, Manes, Manex...* zatekeen herrian) eta deitura *Urrizaga* (*Urritçague* dokumentatzen da Lasako etxea, deitura bihurtu zena, afrikatuarekin betiere). *Oiorot* lehen izengoitia *Oiorotengo* etxeiko jauna izateari zor zion, eta *Doray* bigarrena emaztea Doraiko andregai edo prima izateari: «*Contratos matrimoniales de Juan de Urrizaga y Catalina Barcelona su muger donatarios* ('hartzaileak', oinordekoak alegia) *de las casas de Doray y Oyorotenea de Valcarlos*» (1810, NEAN, 11383/2, 13), «*Juan de Urrizaga dueño de la casa de Oyorot y donatario de la de Doray*» (1811, NEAN, 11384, 60), «*Juan de Urrizaga vecino de este valle y dueño de las casas de Oyorot y Doray*» (1815, NEAN, 11388/1, 199), «*Juan de Urrizaga y Catalina Barcelona su muger [...] dueños de las casas de Doray y Oyorotenea*» (1827, NEAN, 11399, 84).

5.42. Luzaiden, inguruko herrietan bezala, etxe izengoitiek garrantzi izugarria izan dutela zalantzarik ez dago. Hau hagitz argi ikusten da 1817ko lekukotasunean (NEAN, 11390, 68), berrogeita hamar lagunetarik berrogeita zazpik etxe izengoitia badutelako, izen-deituren gibelean.

5.43. Bukatzeko, erran nahi dugu dokumentazioan kausitzen ditugun edota bizirik dauden etxe izengoitietako batzuk, orain, deiturak direla Luzaiden: *Bartzelona*, *Boloki*, *Dorai*, *Etxeberri*, *Granada*, *Paris...* Beste zenbaitetan, *Kaballero* eta *Kanteroren* kasuan erraterako, argi dago *Kaballerorenea* eta *Kanterorena* etxeen oinarrian Luzaidera XVII. mendean-edo iritsi erdal *Caballero* eta *Cantero* deiturak edo goitizena daudela, baina gure sistema ikusirik, argi dago, berebat, hasmentako motibazioa

ahantzirik –edo deitura-izengoiti horien hasmentako eramaileak zein ziren ahazturik–*Kaballerorenea* eta *Kanterorena* etxeetakoei *Kaballero* eta *Kanttero* deitu izan zaiela Luzaiden, eta daitekeena da etxe izengoiti horiek gero, noizbait, deitura bilakatu izana. Ez da segurua, ez dugu horren ziurtasunik, baina badaiteke hola izatea.

Beste etxe izengoiti zenbaitek ere abizena sortu du, baina ez euskarazko formatik abiatuturik, erdarazko aldaeratik baizik. Hau da, oker ez bagaude, Iruñean ezagunak diren *Navarlaz* eta *Reclusa* deituren jatorria, antza duenez Luzaideko etxe zaharretakoak diren *Nabarlatzea* / *Nabarla(t)zen* eta *Errekulusa* / *Reclusaren* izengoitiek lotu behar direnak, horien erdal ebakera eta formekin (*Nabarlaz* eta *Reclusarekin*). Leitzako *Zestau* (*Cestau* erdal grafiaz) deitura Ondarrolako *Zezttau* oikonimoaren izengoitia den *Zeztantik* atera dela dirudi, hola izan den segur ez badakigu ere.

Aitzinekoak argi eta garbi erakusten du, are frogatzen, etxeetan oinarritu deizio horiek gure artean izan duten munta, abizenak sortzeko denboran. Ez da familia izenak antolatzeke izan den bide bakarra, baina bai aintzat hartu behar den era garrantzi handikoa, oraindaino ia inork ikertu ez duena.

## 6. BERRIEMAILEAK

Albertto Eskoz «Edarret».  
 Albertto Larrañeta «Aitzurre».  
 Alizia Arrosagarai «Okaztran».  
 Angel Aintziburu «Buruxuri».  
 Añes Kaminondo «Bartzelonesa».  
 Battitta Arrosagarai «Bordel».  
 Beltran Granada «Zubiaundi».  
 Beñardo Indart «Iribarne».  
 Beñardo Kamino «Martinenea».  
 Beronika Bartzelona «Kurutzearresa».  
 Domingo Anpo «Okaztran».  
 Domingo Bonaut «Bentta».  
 Fermin Arrikaberri «Hargina».  
 Felix Iribarren «Urtxel».  
 Grazian Arrosagarai «Okaztran».  
 Janbatizt Etxegoin «Maestru».  
 Janbatizt Saintesteban «Kurutzear».  
 Janpier Etxegoin «Maestru».  
 Mañex Kamino «Bartzelona».  
 Martxelino Karrika «Xapitel».  
 Martxelo Luro «Xehia».  
 Nikolas Kamino «Bartzelona».  
 Peio Luro «Aldats».  
 Peio Setoain «Grazian».  
 Santi Garriz «Garriz».

## 7. LABURTZAPENAK

LG1, LG2: Luzaideko gutunak 1 eta Luzaideko gutunak 2. J. M. Satrustegiren M.<sup>a</sup> Dolores Etxeberria luzaidar gelariari herritik Urdiaina igorri eskutitz argitaragabeak, XX. mendearen bigarren erdikoak.

NEAN: Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

pr.: (notario) protokoloak.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Apat-Etxebarne, A. [A. Irigarai]. (1974). *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Ediciones y Libros.
- Apezetxea, P. & Salaberri, P. (2009). *Etxalarko etxeen izenak*. Egileen edizioa.
- Arnegi, Baptêmes, Mariages. (1773). [archives.le64.fr/archives-en-ligne/ead.html?id=FRAD064003\\_IR0002&c=FRAD064003\\_IR0002\\_G122&qid=](http://archives.le64.fr/archives-en-ligne/ead.html?id=FRAD064003_IR0002&c=FRAD064003_IR0002_G122&qid=)
- Barandiaran, J. M. (1926). Los establecimientos humanos y las condiciones naturales: pueblo de Aurizperri (Espinal). *Anuario de Eusko-Folklore*, 6, 1-18.
- Cadiñanos, I. (2001). Roncesvalles en el siglo XVIII: obras y reparos. *Boletín Museo e Instituto Camón Aznar*, 108, 81-95.
- Camino, I. (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua.
- Camino, J. (2008). *Herria maitez, Eliza maitez*. Egilearen edizioa.
- Carrasco, J. (1973). *La población de Navarra en el siglo XIV*. Universidad de Navarra.
- Duhau, H. (2003). *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara (Beskoitzeko heskuara)*. Euskal Kultur Erakundea & Beskoitzeko Udala.
- Elosegi, E. (2005). *Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)*. Eusko Ikaskuntza.
- Grupo Mérida. (2003). *Atlas antroponímico de la Lusitania romana*. Fundación de Estudios Romanos, Ausonius Éditions.
- Izengabea. (1787). *Tratado definitivo de límites entre España y Francia en los Pirineos*. Imprenta Real.
- Izengabea. (1885). *Tratado de límites de dos de diciembre de 1856 entre España y Francia, puesto en vigor el 15 de abril de 1859*. Imprenta Provincial.
- Jimeno, J. M. (1969). *Valcarlos valle de Carlos*. Nafarroako Gobernua.
- Jimeno, J. M. (1992/2017). *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*. Euskaltzaindia. Berrarg. in P. Salaberri (arg.). (2017). *Toponimia navarra VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain*. Udalbide, Pamiela & Euskara Kultur Elkargoa.
- Kajanto, I. (1965/1982). *The Latin Cognomina*. Giorgio Bretschneider Editore.
- Madoz, P. (1849/1986). *Diccionario geográfico-estadístico histórico de España y sus posesiones de Ultramar. Navarra*. Berrarg. in D. Sánchez (arg.), (1986). *Navarra. Ámbito*.
- Martín Duque, A. (1983). *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*. Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana.

- Mitxelena, K. (1967). Notas fonológicas sobre el salacenco. *ASJU*, 1, 163-177.
- Monteano, P. (2000). La población navarra a comienzos del siglo XVI: el *Recuento de casas de 1514*. *PV*, 220, 407-432.
- Real Academia de la Historia. (1802). *Diccionario geográfico-histórico de España. Comprehende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya, y provincias de Álava y Guipuzcoa. Tomo II. Machichaco - Zuza*. Imprenta de la viuda de D. Joaquín Ibarra.
- Salaberri, P. & Zubiri, J. J. (2009). Euskal deituren jatorria eta etxe izengoitiak. *ASJU*, 43(1-2), 819-830.
- Salaberri, P., Zubiri, J. J. & Salaberri, I. (2021). *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Hizkuntza azterketa*. Euskaltzaindia.
- Salaburu, P. (1984). *Arau fonologikoak. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia. Fonetika eta Fonologia (II)*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Satrustegi, J. M. (1961). Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca. *Euskera*, 6, 209-229.
- Satrustegi, J. M. (1965). *Bordel bertsularia*. Auspoa.
- Satrustegi, J. M. (1965-1966). Las casas de Valcarlos. *Anuario de Eusko-Folklore*, 21, 13-34.
- Satrustegi, J. M. (1967). *Luzaide'ko kantiak*. Auspoa.
- Satrustegi, J. M. (1969). Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos (S. XIX). *FLV*, 2, 133-286.
- Satrustegi, J. M. (1969-70). Toponimia de Valcarlos. *Anuario de Eusko-Folklore*, 13, 129-158.